



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa
2016-2017 IKASTURTEA

BREXIT: Europar Batasunaren Etorkizuna Kolokan.

Garapen historikoa, negoziaketak eta eszenatoki posibleak.

EGILEA: Xabier Goiria Kortajarena
ZUZENDARIA: Javier Uncetabarrenechea Larrabe

BREXIT: Europar Batasunaren Etorkizuna Kolokan.
Garapen historikoa, eszenatoki posibleak eta negoziaketak.

“Gradu amaierako lan honen autoreak adierazten du lan honetan agertzen diren datuak benetakoak direla, baita lana originala eta propioa dela ere; horrela ez izatekotan, erantzukizuna onartuko luke: plagioa, irudien erabiliera okerra etab. Irudi guztiak haien jabeen copyright dira, lan honetan duten helburua dibulгатzailea besterik ez da.”

Edukia

Sarrera	4
Lanaren aurkezpena eta justifikazioa	4
Metodologia	5
Lanaren Helburuak	6
Hipotesiak	6
Lanaren egitura.....	7
1. Europar Batasuna eta Erresuma Batuaren arteko harreman tirabiratsua - Hurbilpen historiko bat.....	8
1.1.Churchillen Hitzaldia. Erresuma Batua II. Mundu Gerra ostean.....	8
1.2. EFTA, Europar Erkidegoan sartzeko saiakerak eta 1975ko erreferenduma.	10
1.3. Margaret Thatcher eta Txeke Britainiarra.	11
1.4. Europako Akta Bakarra.	12
1.5. Maastricht-eko ituna.	13
1.6. OPTING OUT	14
1.7. Hurbilpen Historikoa. Ondorioak:.....	15
2. BREXITaren testuingurua.....	17
2.1. Gaur egungo egoera.	17
2.2. Alderdi Kontserbadorearen barneko arazoak eta Brexita	19
2.3. David Cameronen 2015eko azaroko gutuna: Europar Batasunari baldintza zorrotzak jartzen.	20
2.4. Britainiar eskakizunei emandako erantzuna. Donald Tusken gutuna eta Europar Batzordearen konklusioak.....	22
2.4. Gutunen inguruko ondorioak.	22
3. BREXITaren bozketa: emaitzen analisia.....	23
3.1. Analisia nazioz-nazio.	23
3.1.1. Ingalaterra.....	24
3.1.2. Ipar Irlanda	26
3.1.3. Eskozia	29
3.2. BREXITaren erreferendumean bozkatu duten boza-emaileen profila.....	31
4. Europar Batasuna eta Erresuma Batuaren arteko harremanak etorkizunean. Dibortzioaren osteko erlazio aukera posibleak.	32
4.1. Ohiko Eszenatoki posibleak.....	32
4.1.1. Estrategia sektoriala:.....	33
4.1.2. EEEEn sartu, EFTAren bidez.....	34
4.1.3. EFTAko kide bihurtu, baina EEEEn sartu gabe.....	34
4.1.4. Suitzar estrategia jarraitu.....	34
4.1.5. Europar Batasunarekin merkataritza libreko akordioa sortu.....	35

4.1.6.	Aduana Batasuna	35
4.1.7.	Europar Batasunarekiko hirugarren estatu bihurtu.....	36
4.2.	Lankidetzak Kontinentalerako Proposamena	36
5.	Europar Batasunaren etorkizuna: Batzordearen Liburu Zuria– Europaren oraina eta etorkizuna.....	40
	2025erako egon daitezkeen 5 eszenatoki desberdin	42
1.	Berdin Jarraitu	42
2.	Soilik Merkatu Bakarra.....	43
3.	Gehiago egin nahi dutenek,	44
	gehiago egiten dute.....	44
4.	Gutxiago egin baina efizienteago.....	45
5.	Elkarrekin askoz gehiago egin.	46
6.	Irteeraren negoziaketak. Lehen pausuak.	48
6.1.	Theresa Mayren gutuna. Europar Batasuneko Itunaren 50. artikularen aktibazioa.	48
6.2.	Europar Kontseiluaren orientazioak Brexit negoziaketetarako	50
6.3.	Irteeraren negoziaketeak. Ondorioak.	51
7.	Ondorio orokorrak.....	53
	Bibliografia.....	57

Sarrera

Lanaren aurkezpena eta justifikazioa.

Hurrengo lerroetan garatu dudan lanak Brexita du aztergai. Gai honen aukeraketarako arrazoiak asko izan dira: lehenik eta behin, gertakari historiko oso garrantzitsu bat da, aurrekaririk ez duena, eta Europar Batasunaren etorkizuna zalantzan jartzeko ahalmena izan du; izan ere, duela urte batzuk, inork ez zuen espero Europar Batasunaren integrazio prozesuak atzera egin zezakenik, estatu batek bere kide izaerari uko eginez eta joanez. Gainera, Erresuma Batua garrantzia oso handiko kidea izan da, mundu mailan arlo politiko, ekonomiko eta militar handien artean baitago, Nazio Batuen Erakundearen segurtasun kontseiluaren kide iraunkorra da, potentzia nuklearra da, eta ekonomia oso sendoa eta globala du, Londreseko hiriak duen botere finantzarioarekin batera.

Hala ere, egia da britainiarrak historikoki europar integrazioarekiko oso mesfidatiak izan direla, kasu batzuetan trabak jarriz (dena den onartu behar da konpromezu bat hartzerakoan, beti bete egin izan dutela) eta askok amaiera hau, nolabait, logikotzat hartu dutela. Gainera, jada beste erreferendum bat egon zen 1975ean. Dena den, onartu behar da erreferendum bidez garrantzia hain handiko erabaki bat hartzen uzteak asko esaten du britainiarren kultura demokratikoaz.

Hasierako paragrafoan adierazitako moduan, Europar Batasunaren etorkizuna zalantzan jartzeko ahalmena izan duen gertakaria da Brexita. Gehienetan, eta batez ere hasiera-hasieran iragarpen negatiboak egiten baziren ere, gerta daiteke Europar Batasunarentzako aukera berriak sortzea, sendotzeko eta bere etorkizunerako hobeak diren bideak hartzeko gai izateko. Zentzu honetan ere, ikertzeko aukera handiak ematen dizkigu gaiak, eta oso interesgarria egiten du.

Aldi berean, lehen aipatu bezala gertakari historiko baten aurrean gaude, eta gradu amaierako lana honen inguruan egiteko aukera izatea paregabea dela deritzot. Egia da honek zenbait muga suposatuta egingo dituela, batez ere prozesu bat delako, eta hilabeteak igaro ahala informazio gehiago egongo da, beraz, kasu askotan lana *zuzenean* egin izan behar izango da; bestalde, gerta daiteke lana amaitzeko orduan, idatzitako puntu asko errefusaturik geratzea, denborak beste bide bat hartu dela argitu baitu.

Dena den, lanaren helburu nagusia Brexitarren irudi sakona eta zabala lortzea izango da, beraz, dimentsio historikoa, testuinguru politiko, bozketa, eta beste hainbeste errealitate zehatzekin lan egingo da; hau da, ez da balizko etorkizuneko eszenatokiekin bakarrik lan egingo.

Laburbilduz, Brexitarren gaia hautatu dut garrantzia handiko gertakari historikoa delako, aztertzeko ematen dituen aukerak oso zabalak direlako eta europar integrazioaren gaiarekin zerikusi osoa duelako, honetan eragin oso anitzak eduki baititzake.

Metodologia.

Lan honen izaera **deskriptiboa** da. Lan mota honetan, ikasiko den fenomeno, egoera edo objektuaren ezaugarri eta berezitasunak azaldu egiten dira, eta hori da egin dudana: Brexitari, eta honen inguruan dauden eta aztertu diren fenomenoen gaineko informazioa bildu da, aztertu, eta azaldu egin dut. Egia da ebaluazio edo iritzirako parteak egon direla, baina hauen papera ez da printzipala izan.

Bestalde, lana egiterako orduan **teknika kualitatiboak** erabili dira gehien bat, batez ere artikulu akademiko, zientifiko, prentsarekin eta txostenekin egin baitut lan; hala ere, **teknika kuantitatiboak** erabilera ere egin da, datu numeriko eta zehatzak erabili ditut eta, esate baterako hauteskundearen emaitzak, edo populazioaren inguruko estatistikak.

Iturrien inguruan, lanaren gehiena bigarren mailako iturriak erabilia egin da, aurreko paragrafoan esandako moduan, artikulu akademikoak, zientifikoak, prentsa, eta txostenak erabili direlako, baina baita liburu bat ere. Aldi berean, lehen mailako iturrietatik ere atera izan da informazioa, gobernu-organismoen web orrialdeetatik ateratako estatistikak eta bestelako informazioaren kasuan. Iturri hauek Erresuma Batuko erregioen estatistika institutu nazionalak eta Europar Batasunaren web orrialde ofizialak izan dira batez ere. Lehen mailako iturriak informazioa modu zuzenean ematen duten iturriak dira, informazioa sortzen den iturriak dira; aldiz, bigarren mailako iturriak ez dira informazio originalaren sorlekua, hauek, informazioa erreferentziatu edo landu egiten dute.

Informazioa biltzeko prozesuan ez dut zailtasun nabarmenik aurkitu, *Google* eta *Schoolar Google* bezalako erramintei esker errez egiten delako informazio bilaketa. Hizkuntzari dagokionean, euskeraz oso informazio urria aurkitu dut, artikulu gutxi. Gaztelaniaz, aldiz, informazio anitza dago baina askotan Kataluniako independentzia prozesuarekin loturik dago. Azkenik, ingelesa izan da erabili izan dudana hizkuntza nagusia, gaiaren inguruko lan eta informazio gehiena hizkuntza honetan eginak baitira; gainera, azken hizkuntza honetako lanak oso anitzak izan dira zentzu askotan, adibidez ikuspuntuan.

Lanaren Helburuak

1. Brexitaren irudi sakona lortzea.
2. Literatura eta txosten zientifikoetan agertzen den Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren arteko etorkizuneko harreman moduen ereduak azaldu eta aztertzea.
3. Literatura eta txosten zientifikoetan azaldu egiten diren Europar Batasunaren etorkizuneko eszenatoki posibleak azaldu eta aztertzea.
4. Negoziaketen lehen pausuak aztertzea.

Lehen helburu nagusia lortzeko, bigarren mailako helburu batzuk finkatu ditut:

1. Brexitaren erro historikoak ezagutzea.
2. Gaur egungo testuinguruaren eragina erakustea.
3. Hauteskundeetan eragin duten faktoreak aztertzea.

Hipotesiak

1. Britainiarrek Europarekiko duten mesfidantzak erro historiko zabalak ditu.
2. Gaur egun bizi dugun nazioarteko kontestuak garrantzia izan du Brexitaren aldeko jarrera gainjartzeko orduan.
3. Barne faktoreen eragina berebizikoa izan da. Eskozian, Ipar Irlandan eta Ingalaterran eragin duten faktore hauek desberdinak izan dira.
4. Europar instituzioen jarrera azkenengo testuinguruan indartu eta bateratu egin da, batez ere Frantziako hauteskunderen emaitzen ostean.
5. Aurreko hipotesian aipatutakoak, europar instituzioen indartzeak alegia, negoziaketek *hard Brexit*aren bidea hartzea eragingo du.

Lanaren egitura

Lanaren egituran, hurrenkera logiko bati jarraitzen saiatu naiz. Egitura honako hauxe izan da:

1. Hurbilpen historikoa.

Honetan nire helburua Brexita nondik datorren azaltzea izan da, honen atzean zer egon den jakitera emateko. Europarekiko mesfidantza historikoa, eta Europar Batasunarekiko hasieratik egon den urruntasuna dira, azken finean, nabarmendu nahi izan dudana.

2. Gaur egungo testuingurua.

Bigarren puntu honetan, gaur egungo testuinguruak Brexitan nola eragin duen adierazi nahi izan dut. Globalizazioak, langabeziak eta nazioartean eman diren beste gertakari batzuen eragina azaltzea izan da nire helburua.

3. Bozketa prozesua.

Erreferendumaren emaitzak aztertzen saiatu naiz, Erresuma Batua osatzen duten nazio desberdinetan zer bozkatu den, eta zergatik bozkatu den azalduz. Análisi txikia da, eta aztertzeko hartu ditudan faktoreak nire ustetan eragin gehien izan dutenak dira; hala ere, beste faktore asko badaude. Honen helburua erreferendumaren emaitzen irudi orokorra lortzea izan da.

4. Etorkizuneko Europar Batasuna eta Erresuma Batuaren arteko harremanak.

Atal honetan etorkizuneko eszenatoki posibleak planteatu ditut. Lana hasterako orduan eszenatoki ia guztiak posible ziren, baina gaur egun batzuk ken genitzake.

5. Europar Batasuna etorkizunean.

Europar Batzordearen Liburu Zurian oinarrituz, 2025ean Europak zein irudi izan dezakeen azaldu dut, bata gaur egun Europak zer erronka dituen ere.

6. Negoziaketen lehen pausoak:

Negoziaketak hasi berriak dira, baina jada, zein bide hartuko duten ikusteko lehen aztarnak ematen dizkigute. Hau da parte honetan aztertu dudana.

1. Europar Batasuna eta Erresuma Batuen arteko harreman tirabiratsuak - Hurbilpen historiko bat.

1.1. Churchillen Hitzaldia. Erresuma Batua II. Mundu Gerra ostean.

Europa eta Erresuma Baturaren arteko harreman tirabiratsua ez da gaur egungo afera, aspaldi-aspalditik datorren zerbait da. Batasuna existitu aurretik, britainiarrek behin baino gehiagotan adierazi zuten euren bidea Europatik aldentuta egon behar zela.

1946ko irailaren 19an, Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Winston Churchill-ek, garaiko Lehen Ministro britainiarrak, Zurich-eko unibertsitatean ikasle gazteei hitzaldi bat eman zien. Honetan, Europaren inguruan mintzatu zen. Laburki, honako hau esan zuen:

Deseo hablarles hoy sobre la tragedia de Europa. Este noble continente cuna de todas las razas originarias del mundo. Es la cuna de la fe y la ética cristianas. Es el origen de casi todas las culturas, artes, filosofía y ciencias, tanto de los tiempos modernos como de los antiguos. Si Europa se uniera, compartiendo su herencia común, la felicidad, prosperidad y gloria que disfrutarían sus cuatrocientos millones de habitantes no tendría límites. Y es desde Europa de donde han surgido y se han desarrollado una serie de horribles guerras originadas por las naciones teutonas durante este siglo XX que ha arruinado la paz y destruido las perspectivas de toda la humanidad".¹²

Ondoren, Europaren etorkizuna batasuna lortzean zegoela adierazi zuen. Hala ere, Erresuma Batua ez zuen bere burua horretan ikusten:

"Debo ahora resumir las propuestas que tienen ante ustedes. Nuestro constante propósito debe ser fortificar la fuerza de la Organización de Naciones Unidas, y en el seno de este volver a crear la familia europea con una estructura regional llamada, quizás, los Estados Unidos de Europa. El primer paso es crear un Consejo de Europa. Si al principio todos los Estados de Europa no están dispuestos debemos proceder a unir aquellos que quieren y pueden. La salvación de la gente normal de cada raza y de cada país, del peligro de la guerra o esclavitud, tiene que establecerse sobre sólidos fundamentos, deben estar protegidos por la voluntad de todos los hombres y mujeres de morir, antes de someterse a la tiranía. En todo este urgente trabajo, Francia y Alemania deben tomar juntas la cabeza. Gran Bretaña, la Commonwealth británica de naciones, la poderosa América y confío que la Rusia soviética -y entonces todo sería perfecto- deben ser los amigos y padrinos de la nueva Europa y defender su derecho a vivir y brillar. Por eso os digo ¡Levantemos Europa!".³⁴

¹ <http://www.cronistasoficiales.com/?p=18299>

² Gaurko egunean, Europako tragediari buruz mintzatu nahiko nintzaizueke. Kontinente noble hau munduko arrazen sorlekua da. Fede eta etika kristauen sorlekua. Ia kultura, arte, filosofia eta zientzia guztien jatorria, bai iraganean bai gaur egunean. Europa Batuko balitz, bere heredentzia orokorra batuz, bere 400 milioi biztanleek gozatuko luketen poztasunak, prosperitatea eta gloriak ez lukete limiterik izango. Eta European sortu eta garatu dira guda ikaragarri batzuk, nazio teutondarrek eraginda, XX. Mende honetan, bakea eta gizadiaren perspektibak suntsitu dituena. (Itzulpen propioa)

³ <http://www.cronistasoficiales.com/?p=18299>

⁴ Orain zuon aurrean proposamen hauek laburbildu behar ditut. Gure helburua Nazio Batuen Erakundea indartsu egitea izan behar da, eta honen barruan familia europarra birsortzea, agian Europako Estatu Batuak deitutako egitura baten azpian. Lehen urratsa, Europako Kontseilu bat sortzea izan beharko litzateke. Hasieran estatu guztiak ados ez baleude, nahi eta ahal dutenak batu beharko genituzke. (...) Premiazko lan honetan Frantziak eta Alemaniak burua izan behar dute. Britainia Handiak, nazioen Commonwealth Britainiarrak, Amerika boteretsua eta, espero dut Sovietar Batasunak ere-eta orduan dena perfektua litzateke- Europa Berriaren babesleak izan beharko dira, eta honen bizitzeko eta distira egiteko eskubidea babestu beharko lukete. Horregatik diot, altxa, Europa! . (Itzulpen propioa).

Asko dago Churchillek lerro hauetan esaten duenari buruz idazteko: Europar zibilizazioari oda bat egiten dion modu berean, gerra krudelen sorlekua izatea ere leporatzen dio; baina batez ere herrialde baten aurka doa hau: Alemaniaren aurka. Horregatik, zehazki Frantzia eta Alemaniaren arteko batasuna beharrezkoa dela adierazten du, Europa batuz, gerrak saihesteko helburu nagusiarekin. Erresuma Batuak kontinentearen batasunerako dei esplizitua egiten badu ere, bere burua kanpoan ikusten zuen, aita edo babesle moduan, munduko beste potentzien artean. Esan dezakegu, horrela Erresuma Batua kontinentetik “aske geratuko zela, hainbeste urtez sortutako gerrekin berriz ere ez oztopatzeke.

Urte batzuk geroago, Messinan ospatutako konferentzian, ordezkari britainiarrak alde egin zuen, hortik ezer lortuko ez zela esanez, eta zeozer lortzekotan, ez zuela funtzionatuko, eta funtzionatuko balu, desastre bat izango litzatekela (Mathieson, 2016).

Baina, Europatik aldentzeko jarrera honek bere erroak historian urrunago ditu. Jada XIX. Mendean, Lord Salisbury Erresuma Batuaren kanpo politika “isolamendu bikaintzat” definitzen zuen. Betidanik aprobetxatu izan dute haien uharte izaera; garai hartan, Europako potentzia gehienek kontinentearen kontrola lortzea helburu zuten, zeinak guda asko eta asko eragin zituen (adibide oso onak dira Frantzia, Austrohungariar inperioa, Otomandar Inperioa...). Britainiarrak, aldiz, kontinentean eragitea ekiditen saiatu ziren, haien arreta kolonietan jarritz. Gainera, Europar potentziek Britainiarrak isolatzeko ahaleginak ere egin zituzten, eta adibide garbia Napoleonen blokeo kontinental da, zeinak kontinente eta uhartearen arteko merkataritza debekatu zuen; hala ere, honek britainiarrengan ez zuen modu handian eragin, ozeanoaren beste aldeetara zabaldu baitziren. XIX. mendean, britainiarrek inperio erraldoia sortu zuten, merkataritza sare izugarri batekin, zeinak Londres zuen hiriburua (Ibid.).

Autonomoak ziren, ez zuten besteen beharrik, eta zentzu askotan esan daiteke besteek zutela bere beharra. Presentzia zuten mundu osoan, ekonomian nagusitasun globala zuten, militarri oso boteretsuak ziren, teknologikoki aurreratuak ... Honek eragin oso handia izan du haien izaeran.

II. Mundu Gerran, berandu eta gogoz kontra sartu ziren. Garaiko titularretan, argi geratzen da zein punturaino Britainiarrek guda hau “Europako gudatzat” hartzen zuten; adibide oso ona da *The Daily Mail* egunkariak, Alemaniarrak ia Europa osoa konkistatzerakoan, idatzitako titularra: “Lanbroa Kanalean, kontinentea isolatua”.

Gerrak Europar herrialdeei batu behar zirela irakatsi zien, nazionalismoak alde batera utziz, estatuaren goraipamena ahaztuz, horrelako hondamendirik berriro gerta ez zedin; horregatik, Frantzia, Alemania, Italia eta Beneluxeko herrialdeak batu egin ziren klabeak ziren sektoreetan: Ikatza, altzairua eta energia atomikoa. Sektore hauen garrantzia ekonomikoa izateaz gain, industria militarrean ere berebizikoak ziren garaian, horrela, ziurtatuko zuten berriz ere armatzea zaila izango zela. Gainera, hain nazionalistak izandako herrialde hauek batzerako orduan, inoren beharra ez zutelaren ideiarekin amaitu nahi zuten ere. Kontinentean gerra ekiditeko modu bakarra batasuna lortzea eta estatu-nazioen eta nazionalismoaren nolabaiteko desagerpena zela ikasi bazuten ere, Erresuma Batuak beste modu batean ikusi zuen: Lider Britainiarrek herrialdearen independentzia bermatu zuen faktorea isolamendua izan zela zioten. Kontinentean nazionalismoa eta nazio-estatuaren kontzeptuak nolabait belztu baziren ere, Britainiarrek hauek erreklamatu zituzten demokraziaren babesle moduan (Kavanagh, 1997).

Inperio izaerak, Commonwealthak, Segurtasun kontseiluan egoteak, Washingtonekin duten erlazio bereziak (atlantismoa), duten botere ekonomikoak, inbasio edo okupaziorik, gerra zibilik edo diktadurarik eduki ez duen EBko herrialde bakarra izateak, eta, azken finean, beste herrialde europarrekiko bide desberdina eduki izateak eragin psikologiko eta identitario oso handia izan du britainiar hiritarrengan (Mathieson, 2016).

1.2. EFTA, Europar Erkidegoan sartzeko saiakerak eta 1975ko erreferenduma.

Britainiarrek hasiera batean argi zeukaten ez zutela integrazio politikorik nahi, hori ez zen nahi zuten bidea. Haien egoera, gainerako europar herrialdeen egoerarekin konparatuz oso desberdina zen: Erresuma Batua ez zegoen guztiz suntsiturik, ez zuten ikatz alemanarekiko dependentziarik, eta ez zuten merkatu gehiagorik behar. Hala ere, 50. Hamarkadan, koloniak galtzen hasi ziren, Commonwealtheko herrialdeak independentzia lortzen hasi zirelako, horrela arazo ekonomikoak hasi ziren britainiarrentzat; II. Mundu Gerrak, Britainiar Inperioa suntsitu zuen, eta berandu konturatu ziren (Gracia, 2016).

Erromako Ituna sinatzen ari zen bitartean, 1957an, britainiarrek Europako Ekonomia Erkidegoan ez zeuden herrialdeei alternatiba bat proposatu zien, europar integrazioak ematen ari zituen emaitza onak kontutan hartuz. Horrela, 1960an EFTA sortu zuen (ibid.).

European Free Trade Association (EFTA) Erresuma Batuak sortu zuen, Austria, Danimarka, Norvegia, Portugal, Suedia eta Suitzarekin batera. Honen berehalako helburua Estatu-kideen artean ondasunen merkataritza liberalizatzeko azpiegitura sortzea zen, Europako Ekonomia Erkidegoaren proiektu politikoarekiko alternatiba bat eskainiz.⁵

Hala ere, emaitza ekonomikoak espero zutena bezain onak izan ez zirenez, eta EEEn gorakada eta hazkundea ikusita, honetara sartzeko eskakizun formala egin zuten. Harold MacMillan izan zen 1961ean, sartzeko eskaera egin zuen Lehen Ministro Britainiarra, eta Denis Kavanah arabera (1997), eskakizun hau erregu hutsa zen; benetan behar zuten Batasunean sartzea, oraindik potentzia oso indartsua baziren ere, erronka asko ari zirelako jasaten rol hori mantentzeko; izan ere, Commonwealth-ak eta AEBkin zuten “erlazio bereziak” ez zioten laguntzen paper hain berezi eta indartsu hori mantentzen. Erresuma Batua integrazio prozesutik kanpo geratzekotan, beldur ziren mundu geroz eta polarizatu horretan atzean gelditzeaz, eta inor ez izatera igarotzeaz.

Alderdi Kontserbadorea garai hartan banatuta zegoen, europarziale eta ez europarzaileen artean; laboristak antieuroparrak ziren gehien bat; benetan europarzailea zen bakarra alderdi liberala zen (Kavanah, 1997). Gainera, Alderdi Kontserbadorean uste zuten Erresuma Batua lidergo politikoa izatera helduko zirela, eta AEB eta EBren arteko erlazioak hobetzea lortuko zutela. Dena den, Charles **De Gaulle**, presidente frantsesak, ezetz esan zien 2 alditan, bata 1963an (eskaera egin zuten lehen aldian) eta bestea 1968an; izan ere, bere ustetan Erresuma Batua AEBn influentziarako atea izango litzateke European eta aldi berean, Frantziarentzako lehiakide garrantzitsua bihurtuko litzateke (ibid.).

Azken eskaera 1970ean egin zuten, Ted Heart Lehen Ministroa buru zela (alderdi kontserbadorekoa), eta 1973an, barruan zeuden; baina, aurrerapen ekonomiko handia espero bazuten ere, garaiko krisiak emaitza txarrak egotea eragin zuen, eta pertsona askok eta askok

⁵ <http://www.efta.int/about-efta/european-free-trade-association>

etsipena sentitu zuten. Horrela, urte gutxi geroago, **1975ean**, Harold Wilson laboristak, Erresuma Batuaren permanentzia galdetzeko erreferenduma planteatu zuen; garai hartan, dena den, jendeak baietz bozkatu zuen proportzio handi batean, %67.2ak, alegia (Kavanah, 1997; Nelsson, 2015)

1.3. Margaret Thatcher eta Txeko Britainiarra.

1979an, Margaret Hilda Thatcherrek irabazi zituen hauteskundeak, alderdi kontserbadorearekin. Altzairuzko Andrea ezizenaz ezagututako Lehen Ministroak, subiranotasun britainiarra oso serio hartu zuen. Europar Batasuneko burokrazia gehiegizkoa zela argudiatu zuen, eta gainera, ez zen batere europarzailea, atlantista baizik (Kavanagh, 1997). Bere pentsamendu ultra neoliberallean, aproposa zen merkatuen zabaltzeak ematen zituen aukerak; hala ere, nazioartean subiranotasun nazionala galtzea pentsaezina iruditzen zitzaion, eta gogorki egin zuen europar integrazio sakonaren aurka. Modu honetan, Euroaren aurrekaria izandako kanbio-tipoen mekanismoaren aurka azaldu zen, ez zuen nahi Erresuma Batuak politika monetarioaren kontrola galtzea, ganbio-tipoak atzerrian utziz, batez ere *Bundesbank* alemaniarren eskutan (ibid.)(hala ere, kontutan hartu behar da Thatcherrek EBN geratzeko kanpainaren alde egin zuela 1975eko erreferendumean). Bere kontraktasuna, batez ere, Europar Batasunaren errekurtsio propioen sistemarekikoa zen; izan ere, bere aburuz, Erresuma Batuak gehiegizko diru ekarpenak egiten zizkion Europar Batasuneko aurrekontuei, batez ere, Nekazaritza Politika Komunaren arloan, zeinean Britainiarrek ematen zutenaren erdia baino gutxiago ematen zuten. Horrela, **Txeke Britainiar** famatua negoziatu zuen Bruselarekin, Britainiarrek eman beharreko diru kantitatea gutxitzeko.

Baina, zer da Txeko Britainiarra? Ondo ulertzeko, lehenengo Europar Batasunaren finantzazioaren funtzionamendua ulertu behar dugu. Europar Batasunaren hasieran, oraindik Europako Erkidego Ekonomikoa zenean, finantzaketa Estatu-kideek egindako aportazioen bidez egiten zen. 1970. urtera arte, EBk ez du berezko errekurtsioak edukitzeko sistemarik izango. Horrek, diru iturri hauek ditu:

1. Berezko Errekurtsio Tradizionalak
 - a. Aduana eskubideak, nekazaritza eskubideak eta azukre eta isoglukosaren aportazioak. 2015ean, hauek sarrera totalen %12.8a ziren.
2. BEZan oinarritutako berezko errekurtsioa
 - a. Estatu kideek BEZaren bidez jasotzen duten diruaren parte bat Batasunera ematean datza. 2015ean sarrera totalen %12.3a ziren.
3. Errenta Nazional Gordinean oinarritutako berezko errekurtsioa
 - a. Estatu kideek, ENGaren portzentai bat eman behar diote Batasunari, zeina urtero finkatzen den. Hasiera batean, gainerako errekurtsioak nahikoak ez baziren aplikatzen zen bakarrik, baina gaur egun nahitaezkoa da, eta EBren errekurtsioen %68.96a osatu zuen 2015ean.
4. Beste batzuk
 - a. Europar Batasuneko funtzionarioen soldatetan zergapetzen dena, batasunetik kanpo dauden, baina honen programa batzuetan parte hartzen duten herrialde batzuek ordaintzen dituzten kontribuzioak eta enpresei ezarritako isunak, besteak beste. 2015ean, aurrekontuen %6a izan ziren (Ollikainen, 2016).

Errenta Nazional Gordinak (ENG) garrantzia irabazten zuen bitartean, aurrekontu berdintasun handiagoa egotea lortu zen, herrialdeek haien aberastasunaren arabera aportatzea eragin zuelako. Salbuespen bakarra Erresuma Batua da, zeinak bere aberastasunarekiko diru gutxiago ematen duen. Honen arrazoia **Txeke Britainiarra da**.

Txeke Britainiarra 1984an sortu zen, Fontainebleauko Europar Kontzeju Ekonomikoan, Erresuma Batuak zuen aurrekontuen desoreka konpontzeko, alde batetik ematen zuen diru kantitate handian sortzen zena, eta bestetik, lehen sektore txikia edukita, Nekazaritza Politika Bateratutik (NPB) jasotzen zuen dirua ez zielako konpentsatzen. Britainiarrek gehiegizkotzat definitzen zuten ordainketa honen aurrean, “bidezko itzulpen” bat aldarrikatzen zuten. Lehen fase batean Europar Komisioa eta Kontzejua aurka ageri baziren ere, azkenean onartu zuten, BEZ errekurtoa murriztuz. Hasieran, bakarrik Erresuma Batua izan zen, baina 1994an, Berlineko Europar Kontseiluan, 4 estatu gehiago atxikitu ziren.

Metodologia berri honekin, Britainiarren aportazioa, gutxi gorabehera, ordaindu beharko luketena baino bi heren gutxiagokoa da. Azken finean, BEZ bidezko aportazio txikiagoak egiten dituzte. Konpentsazio hau gainerako estatu kideek finantzatu behar dute; adibidez, 2004an, Espainiak, Frantziak eta Italiak honen %66'21a ordaindu zuten (Serrano Leal, C., Montoro Zulueta, B, Viguera, Rubio, E., 2005).

Hau Thatcherrek egindako negoziaketarik garrantzitsuenetarikoa izan zen, eta inflexio puntu bihurtu zen. 1990. urtera arte gobernatu zuen.

1.4. Europako Akta Bakarra.

Europako Akta Bakarra Luxemburgon sinatu zen 1986an, eta 1987an sartu zen indarrean, instituzio europarren funtzionamendua aldatu zuen, konpetentziak gehitu zizkion Batasunari eta kooperaziorako eremu berriak zabaldu zituen baina bere helburu nagusia barne merkatua sortzea zen⁶. Oraingo honetan, Thatcher alde agertu zen (Kavanagh, 1997), bere ustez esentzietara bueltatzea suposatuko lukelako, baina, batez ere, bere proiektu neoliberala Europan zehar zabaltzeko asmoak betetzeko aukera izango zuelako. Berak, Akta Bakarraren idazketan parte hartu zuen, eta artikulua sartu zuen, 100A artikulua, alegia. Hau klabea izan da Europar Batasunean politika sozialak inplementatzea galarazi zuelako, eta Ministroen Kontseiluak erabakiak gehiengoz hartzea eragotzi zuen eta (Areilza Carvajal, 1996).

Baina bere plana ez zen ondo joan, eta ituna beste modu batean garatu zen; alde batetik, Kontseiluaren erabaki asko gehiengo kualifikatu bidez hasi ziren hartzen, Komisioak botere gehiago hartu zuen, eta erabaki asko kontsentsu barik hartzen hasi ziren, arlo ekonomiko eta sozial asko erregulatuz, justu Thatcherrek saihestu nahi zuena. Beraz, berak sinesten zuen erregulazioaren aurka joango zen programa hau, bere egikaritzeko orduan, komunitaterako erregulazio interbentzionistarako programa batetan bihurtu zen (ibid.).

Horrenbestez, laurogeigarren hamarkadan, alderdi kontserbadorean sektore euroeszeptiko bat sortu zen, Thatcher buru zela (nahiz eta paradoxikoki, urte batzuk lehenago Batasunaren alde agertu); izan ere, engainatuta sentitu zen, Akta Bakarra, azkenean, interbentzionismoa sustatu zuelako. Askoren ustetan, XIX. mendeko subiranotasun

⁶ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV%3Axy0026>

nazionalaren kontzeptu batetara atxikitu zen, eta bere Europar Batasunaren irudi minimalista sutsuki defendatu zuen (ibid.).

Aldi berean, Alderdi Laborista garai honetan Europar Batasuna bihurtu zen, Jacques Delorsen europar politika sozialak sortzearen beharra zegoela entzuterakoan, barne merkatuak sortutako desregulaketa nazionalen aurre egiteko; gainera, Thatcherrek beldur zion Europak sustatzen zuen “atzeko ateko sozialismo” deitutako horri, eta laboristek beldur hori gustuko zuten, Europar politika sozialak inplementatzeko aukeratzat ikusten baitzuten (ibid.; Kavanagh, 1997).

Thatcherrek Alderdi Kontserbadorearen buruzagitza moneta bakarraren negoziaketetan galdu zuen, eta bere ondorengoak, John Majorrek, 1991etik aurrera ikuspegi europarraleago bat eduki zuen, beti ere bere alderdiko sektore eurozeptikoari kontzesioak emanez (de Areilza Carvajal, 1996.).

1.5. Maastricht-eko ituna.

1992an Maastricht-eko Ituna sinatu zen, zeinak gaur egun ezagutzen dugun integrazio politikoa ahalbidetu duen. Europar Batasuneko Ituna ere deitzen zaio, eta EBa hiru zutabetan oinarritzen du: Europar Erkidegoak, Europar Batasuneko Kanpo Politika eta Segurtasun Komuna (EBKPS), eta Kooperazio Poliziala eta Judiziala arlo penalean. 1993an sartu zen indarrean, eta helburu hauek zituen:

1. Instituzioen legitimitate demokratikoaren indartzea.
2. Instituzioen efikazia hobetzea.
3. Batasun ekonomiko eta monetario bat sortzea
4. Komunitatean dimentsio sozial bat sortzea.
5. Kanpo eta segurtasun politika komuna sortu.

Itun honek Europar Batasuna gaur egun ezagutzen dugun moduan sortu zuen⁷. Antonio A. Martinok, bere “Brexit” artikuluan (2017), esaten duen moduan Maastricht-eko itunak botere exekutiboak, legislatiboak eta judizialak dituen instituzio supranazional bat sortu zuen, Europar Batasuna, Komisia lehen boterea duelarik, Parlamentuak bigarena eta Justizia Gorteak hirugarrena.

Itun honen negoziaketan garaian John Major zen Erresuma Batuen Lehen Ministro. Lehen aipatutako moduan, hau ez zen bere aurrekaria bezain eurozeptikoa, horrenbestez, politika sozialen eta moneta bakarraren aurrera egiteak betatu beharrean, opting-outaren printzipioa onartzea lortu zuen, zeinarekin sektore askotan Batasunak aurrera egin ahal izan zuen, baina Erresuma Batua hauetan sartu gabe. Modu berean, politika komunak aurre egitea eta parlamentuak botere gehiago edukitzea geldiarazi zuen, Estatuen boterean alde (De Areilza Carvajal, 1997).

Horrela, Erresuma Batua moneta bakarretik kanpo geratu zen, eta nolabait modu esplizitu batean abiadura desberdinetako Europa bat onartu zen, zeinean herrialde batzuek integrazioarekin aurrera egingo zuten, eta beste batzuk, arlo batzuetan ez liraterke integratutako, integrazio maila desberdinetako Europar Batasuna sortuz; izan ere, **opting out** aukera beste estatu batzuetara ireki zen.

⁷ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV%3Axy0026>

1.6. OPTING OUT

Zer dira *Opt-Out*-ak? Europar Batasunaren legedia Batasuneko estatu guztietan aplikatu behar den arren, herrialde batzuei salbuespenak onartzen zaizkie, hauengandik blokeo bat ekiditeko. Opt-outak, opt-in-a ere badakar, hau da, prozesu batzuetara batzeko aukera. Lau dira gaur egunean “opt-out”ak dituztenak: Erresuma Batua, Danimarka, Irlanda eta Polonia.

Hau eskatzeko lehen estatua Erresuma Batua izan zen, aurreko puntuan aipatutako moduan, Maastricht-eko ituna sinatzerakoan. Honetan Britainiarrek eskatu zutena Moneta Bakarrean ez sartzea izan zen, eta Europak Protokolo 25 deitutakoaren bidez ahalbidetu zion. Honen bidez, Erresuma Batua integrazio ekonomikoaren bigarren fasean geratuko litzateke. Protokoloak hau esaten du:

1. Itunak ez ditu Erresuma Batuaren botereak arlo ekonomikoan aldatuko (moneta politikan botereak edukitzen jarraituko du zuzenbide nazionalaren arabera).
2. Erresuma Batua, Itunak aipatutako gehiegizko defizitei buruzko disposizioetatik kanpo geratuko da.
3. Europako Banku zentralen sistemaren, Europako Banku zentralaren eta instituzio hauen erreglamendu eta erabakien gaineko ituneko disposizioek Erresuma Batuarengan ez dute eraginik izango.

Aldi berean Erresuma Batuak Europar Batasunaren arlo ekonomikoaren eremu batzuetako bozketetan ez du parte hartuko. Gainera, batasun monetarioan sartzekotan, Erresuma Batuko gobernuak 5 froga pasatu beharko lituzte:

1. Ziklo ekonomikoen konbergentzia
2. Flexibilitatea
3. Inbertsioa
4. Zerbitzu finantziarioak
5. Hazkunde ekonomikoa, estabilitatea eta enplegua.⁸

Batasun monetarioa ez da Erresuma Batuak uko egin dion arlo bakarra, beste eremu batzuetatik ere kanpo geratu da:

1. Schengen arean sartzea: Irlandarekin batera, Erresuma Batuan sartzeko europar hiritarrek pasaportea behar dute.
2. Oinarrizko eskubideen gutuna: Poloniarekin batera, Britainiar gobernuak ez zuen sinatu, batez ere bere lan legediaren aurka egin zezakeelako.
3. Askatasuna, segurtasuna eta justiziarako area : Irlanda eta Erresuma Batua, Ituneko V. Tituloaren askatasun, segurtasun eta justiziarako arearekin zerikusia duten Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren edozein akto legal, akordio edo sententzietatik kanpo egongo dira.⁹

Maastrichteko Itunak garaira arte ezagutzen zen batasun indartsuena nahi zuen sortu, benetako Europar Batasuna sortuz. Horregatik Europar Batasuneko ituna ere deitzen zaio; hala ere, argi ikusten dugu Britainiarrek ez zutela honetan aurrera egiteko interesik, eta lehen

⁸ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV:l25060>

⁹ <http://www.europaciudadana.org/las-excepciones-al-cumplimiento-de-los-tratados-comunitarios-opt-outs-y-opt-ins/>

aipatutako lez, integrazioan atzean geratzeaz gain, beste herrialde batzuek gauza bera egiteko aurrekaria egin sortu zuten, lehen esandako moduan, abiadura desberdinetako Europa sortuz.

1.7. Hurbilpen Historikoa. Ondorioak:

Parte honetan, Europar Batasunak eta Erresuma Batuak historikoki eduki dituzten harremanak azaltzen saiatu izan naiz, eurozeptitismo britainiarra fenomeno berria ez dela kontura gaitezen. Churchillek 1946an emandako diskurtsotik honako 71 urte hauetan, arazoak egon dira beti. Atal honen sintesi bat egiteko, britainiar jokaeraren ideia batzuk azpimarratu nahiko nituzke:

1. Europar Batasuna sortzen ari zen garaian, Erresuma Batua **inperio oso garrantzitsua** zen. Koloniak zituen mundu guztian zehar, eta **Commonwealthak**, merkataritza abantaila handiak ematen zizkion. **2. Mundu Gerratik garaile** atera ziren, eta haien isolamenduak, **inbasiorik ez** pairatzea ahalbidetu zien. Horrenbestez, kontinentean ez bezala, **sentimendu nazionalista** bat sortu zen **Erresuma Batuan**.
2. 50. Hamarkadan, **Inperioa desagiten** hasi zen, eta haien paper eta **botere** internazionala **arriskuan** ikusi zuten. Integrazio ekonomikoa beharrezkoa zela ikusi zuten, **EFTA** sortuz. Honen emaitzak esperotakoa bezain onak izan ez zirenez, Europar Batasunera sartzen saiatu ziren, baina **2 alditan** Frantziaren **ezetza** jaso zuten. 1973an lortu zuten sartzea, baina garaiko krisiak (besteak beste), emaitza ekonomiko onak edukitzea oztopatu zuen; gainera, haien kontzientzia nazionalan, aurretik aipatutakoagatik, zuten inperio boteretsuaren ideia zela eta, Batasunaren barruan rol berezi eta garrantzitsu bat behar zutela uste zuten, zeina ez zuten eduki. Horrela, **lehen Brexit erreferenduma 1975ean** ospatu zuten, baina baietzak argi irabazi zuen. Honetan ikusi ahal dugun beste faktore garrantzitsu bat **pragmatismo britainiarra** da, komeni zaiena komeni zaienean nahi dute.
3. Thatcherren garaian, aurreko puntuan aipatutako pragmatismoa ere oso argi ikusten dugu. Hasiera batean Europar Batasunaren aldeko kanpaina egin bazuen ere, bere merkatuak zabaltzeko interes neoliberalak asetzeko besterik ez zen; izan ere, modu guztietatik saiatu zen Erresuma Batuak kompetentziarik ez galtzea, Europar Batasunaren finantzaketarako ahalik eta diru gutxien ematea nahi zuen, **Txeke Britainiarra** sortuz, eta **Akta Bakarraren sorreran**, positibotzat hartu zuen merkatuen liberalizazioarako tresnatzat ikusi baitzuen, baina azkenean, erregulaketa gehiagorako aukera eman zion Europar Batasunari, justu Thatcherrek ekidin nahi zuena. Berriro ere, hemen Britainiar pragmatismoa argi ikus dezakegu, bai eta Britainiarren paper berezi bat edukitzeko asmoa edo nahia.
4. Azkenik, Maastritcheko itunaren negoziaketetan, kasu honetan John Major Lehen Ministroarekin, integrazioarako oztopoak jarri zituzten ere, integrazio maila desberdinetako Europa sortuz. **Opting-out** aukera aldarrikatu zuten, komeni ez zitzaizkien politiketan parte ez hartzeko, eta aldi berean, haiek komeni zitzaiela uste zutenean, sartu ahal izateko **Opting-in** aukera.

BREXIT: Europar Batasunaren Etorkizuna Kolokan.
Garapen historikoa, eszenatoki posibleak eta negoziaketak.

Historian zehar ikus ditzakegun Britainiar jokabide eta pentsamenduaren konstante nabarmenenak hauek dira:

- Inperio Izaera eta sentimendu eurozeptikoa, haien kabuz autosufizienteak direlaren ideia.
- Arazoak Europatik datoz: lehen gerrak ziren, eta gaur egun arazo ekonomikoak. Gainera, Europa eta batez ere Alemaniatik, beti britainiar subiranotasun nazionalari mehatxua egin zaiola dirudi.
- Pragmatismoa: ez dira printzipio bati hertsiki lotzen, komeni zaiena behar dutenean hartzen dute. Honen barnean alderdi politikoek eta hauen liderrek izan dituzten posizio aldaketak sartu ahal ditugu.

2. BREXITaren testuingurua.

2.1. Gaur egungo egoera.

Brexit fenomenoak erroak historian baditu ere, gaur egungo kontestu politiko, sozial eta ekonomikoaren emaitza zuzena ere bada. Krisi ekonomikoak, globalizazioak, gerrek, aldaketa sozialek ... Jendartea eta politikaren arteko harremanak aldatu ditu; orain, inoiz baino gehiago, politika, eta politikariak "etsaitzat" ikusten dira, herrialdez herrialde ñabardura desberdinekin, (ez baita gauza bera Frantzia, Espainia, Britainia Handia edo Estatu Batuetan) baina denetan ari dira gauzak aldatzen. Mendebaldea, asaldaketa politiko sakon eta estrukturaleko garai batean murgildu da (Muñiz, 2017).

Fenomeno hauen izendatzaile komuna hiritargoaren eliteekiko atsekabetasun sentimendua da, elite horiek politikoak, ekonomikoak edo intelektualak direlarik, eta emaitza ordenu liberalarekin moztu nahi duten mugimenduen sorrera izan da. Hala ere, mugimendu hauek ez dira zertan ezkerrekoak izan behar, edo ez dute zertan egoera benetan justuago batetara iritsi nahi, gehienetan mugimendu oso identitarioak edo nazionalistak izaten dira, xenofoboak eta zentzu askotan atzerakoiak; adibide bat jartzearen, Europan 80. hamarkadan eskuin muturreko alderdiek zuten babesa batz bestekoa baldin bazen ere, 2016an %12koa zen. Hala ere, batz bestekoa da hori, ez da herrialde guztietan eman. Kasu esanguratsuenak Austria, Alemania, Frantzia edo Herbehereak bezalako herrialdeak dira, oso garatuak direlako zentzu guztietan, baina eskuin muturra debate politikoaren erdigunean dago. Gure kontestuan, Europar Batasunarenganako konfiantza, 2004 eta 2014ra bitartean %20an jaitsi zen, eta bizi garen marko politiko eta juridikoa zalantzan jartzen hasi da (ibid.).

Manuel Muñizen arabera (2017.), 3 dira egoera hau sortu duten faktoreak: Krisi finantzarioa, globalizazioa eta identitatea.

1. **Krisi finantzarioa:** krisiak milioika eta milioika lanpostu suntsitu zituen, balore ekonomikoarekin batera. Herrialdez herrialde modu desberdinean eragin bazuen ere, denetan izan da modu oso negatiboan. Honen barruan, Héctor Dupuy eta Martín Morgantek (2016), *PIGS*-en fenomenoaren sartzen dute, baina, zer dira *PIGS* delakoak? Akronimo bat da, eta Portugal, Ireland, Greece eta Spain izenei egiten die erreferentzia (Portugal, Irlanda, Grezia eta Espainia, hurrenez hurren), *Financial Times* egunkariak sortua. Herrialde guzti hauek egoera kritikoetan egon ziren, eta erregelamendu instituzionalak hautsi zituzten. Honek, Erresuma Batua bezalako herrialdeak haserretu zituen, batez ere Greziaren kasuan, zeinak Europar Batasunaren hiru kondizio basikoak hautsi zituen; kontestu honetan, askok defendatu zuten Greziak batasuna utzi behar zuela. Gainera, krisiak lehen klase ertainekoak ziren langile askok eta askok haien lanpostuak galtzea eragin zuen, edo bestela baldintza oso txarretan lan egin beharra: soldata baxuak, denbora epe laburrerako kontratuak ... Hau ere bai gure kontestuan bizi izan dugu, Europa osoan bizi izan da, Erresuma Batuan barne.
2. **Globalizazioa:** honen eragina AEB eta Europako klase ertainetan oso txarra izan da, soldaten geldiaraztea eta lanaren desagerpena ekarri dituelako, enpresa handiek herrialde merke eta lehiakorretan nahiago dutelako inbertitu (India edo Txina, adibidez), eta beraz, produkzioa, enplegua eta errentak Europatik ekialdera eramatea eragin izan duena. Hau izan da batez ere AEBtan eragina izan duen faktorea, Trumpen garaipenerako klabea izan dena (Muñiz, 2017). Aurreko puntuarekin zerikusia du, honek

maila ertaineko klaseengan izan duelako eragina ororen gainera, haien haserrea eta atsekabea piztuz.

3. **Identitatea:** Honek zerikusi handia du errefuxiatuen krisiarekin, eta Erresuma Batuko kontestuan europar inmigrazioarekin. Ekialde hurbilean mendebaldeak eragindako estatu askoren porrotak, gerrak eta terrorismo gehiago ekarri ditu, eta honekin batera, errefuxiatu asko eta asko. Honek, erasoak eragin ditu europar lurretan, baina baita aurretik ikusi ez den immigrazio fluxu bat, zeinak, jende askok mugimendu eta alderdi xenofoboei babesa ematera eraman dituen (ibid.). Bestalde, Erresuma Batuaren kasuan, Europar Batasuneko beste herrialde askotatik inmigrante kopuru handia jaso dute, eta krisi kontestuan, mehatxu moduan ikusten dituzte. Gehienetan etorkinekin gertatzen da, jendeak kriminalitatearen igoerarekin eta lanpostuen *lapurreta* edo desagertpenarekin lotzen dituzten, baina baita bizimodu zehatz baten, kultura baten edo identitate baten (britainiar/ingelesarena) desagertpenarekin ere.

Horrenbestez, sortzen den tesia da Brexita edo Trumpen alde bozkatu duten pertsonak, mundu globalizatuan haien identitatea arriskuan ikusten duten klase ertaineko gizon zuriak direla. Hauentzat, soluzioa erreza da: mugak itxi, lana *lapurtzen* eta segurtasuna arriskuan jartzen dituzten etorkinak bota eta marko juridikoa gogortzea identitate nazionala babesteko (ibid.). Hau, Brexita zergatik gertatu den ulertzeko eta azaltzeko oso aproposa da eta esan genezake, modu sinplean, arrazoi hauek izan direla honen eragileak.

Baina Muñizen arabera (2017), eragin oso handia duen eta beti ahaztu egiten dugun faktore bat aurrerapen teknologikoa da; izan ere, honek lanpostuen galera oso handia eragingo du. Gutxika-gutxika, makinek lan errez eta errepikakorrek egingo dituzte. Adibide moduan honako hau aipatzen digu: 1980an industria amerikarrean 24.9 langile behar ziren milioi bat euroko ondasunak sortzeko, 2015ean aldiz, bakarrik 6.4, hau da, 4 aldiz gutxiago. Arazoa da gaur egungo automatizazio hau azkarrago emango dela, eta langile horiek beste leku batean sartzeko arazo askoz ere gehiago egongo direla. Gainera, produktibitatea izugarri igotzen ari den bitartean, soldatek berdin darraite.

Autore honen arabera, sistema produktiboaren aldaketa honek klase sozial berri bat sortu du. Hau langabeek, eta langile txiroek osatzen dute, eta haien sentimendu nagusiak eliteen eta sistemaren aurkakoak dira, horiek batzen dituzte. Hauei *prekariadoa* deitzen die. Bere hitzetan, klase sozial honek aukera politiko populistak aukeratzen ditu orokorrean. Nire ustez, langile txiroen klase honek horrelako aukerak hautatzen ditu lehen azaldutako etsipena dela aurretik aipatutako haien egoera txarra direla eta.

Hauek, garai honetako ordenu liberalaren aurkako jarrera dute, elite liberalaren aurka, zeinaren iraunkortasuna neurri handi batean hautesleriaren eskuetan dagoen; beraz, autore honen hitzetan, Europar Batasunak fenomeno hau sakonki pairatuko du (eta dagoeneko pairatzen du), integrazio proiektu hau neurri handi batean elite ekonomiko eta politikoen aurrera eraman baitute, eta, nahiz eta bere printzipioen artean demokrazia oso garrantzitsutzat hartu, eliteek, ia demosaren kontrolik gabe, egiten dituzte erabaki guztiak (ibid.). Hau da, Europar Batasuna eta bere instituzioak jendearengandik oso urrun daude, guk kontrolatu ezin dugun ente baten moduan; nazio-estatuetan, nahiz eta modu mugatuan izan, jendeak nabari du eragina izan dezakeela, baina EBean ez.

Aldi berean, Muñizen aburuz, multikulturalismoa ere kuestionatuta egongo da. Mugen malgutasunak (Europar Batasuneko kontestuan batez ere), hartu-eman ekonomiko, kulturalak,

eta demografikoak arriskuan egongo dira. Nire aburuz, hala ere, hau jadanik existitzen da, eta aspalditik existitu dela ere esan dezaket.

Prekarietate eta pobrezia hutsean bizi diren pertsona hauek, haien sentimendu antielitistarekin, dira Brexitan Batasunetik ateratzearen alde bozkatu dutenak. Elite akademikoek, ekonomikoek eta politikoek ez dute ohiko jendearen konfidantza, ia guztiz galdu dute; izan ere, Brexitarren alde bozkatu duten pertsonen artean, hauenganako konfidantza %-30, %-40 eta %-75koa zen, hurrenez hurren (ibid.). Esanguratsua da klase politikoarenganako konfidantza maila, oso oso baxua dena.

2.2. Alderdi Kontserbadorearen barneko arazoak eta Brexita

Askoren aburuz, Brexita esku artetik ihes egindako Alderdi Kontserbadorearen barneko borroka bat izan da. Hau izan da behintzat, Guy Verhofstadt-ek, Europako Alderdi Liberal eta Demokrataren liderrak, esan duena (Watts, 2017).

Alderdi kontserbadorearen banaketa hau, dena den, ez da berria, atal historikoan aipatu dudan moduan, 80ko hamarkadan izan zuen hasiera, Thatcher buru zelarrik. Baina, inflexio puntua izan zen 1992an Erresuma Batua Ganbio Tipoen Mekanisмотik atera zenean (Diamond, 2016).

Diamonden arabera (ibid.), gertakizun honek Toryen alderdian eurozeptiko gogorren lerroa sortu zuen, zeina bai John Major eta bai David Cameron Lehen Ministroek nolabait geldiarazten saiatu ziren. Egia da lain Duncan Smith bezalako antieuroparrak ere egon direla, baina garaian ideia honek ez zuen ia babesik izan Erresuma Batuan; horrenbestez, David Cameronek, 2006an, Alderdi Kontserbadorearen itxura aldaketa bat proposatu zuen, eurozeptitismoa alde batera utziz, eta posizioa arlo horretan moderatuz.

Hala ere, azken urteetan Eurozeptitismo sentimenduaren gorakada zela eta, eta kontserbadorearen barruan sektore handi batek UKIPek bozka asko irabazteaz beldur zirenez, presio handia egin zuten, eta Cameronek erreferendumerako data 2016ko ekainaren 23rako jarri zuen (nahiz eta bere alderdikide askok 2011n ospatzeko presionatu bazuten ere) (ibid.). Zehatzago, Cameronek 2015eko hauteskundeetan zin egin zuen haiek irabaztekotan, Europar Batasuneko pertmanentziari buruzko erreferendum bat antolatuko zutela 2017a baino lehen. Promesa hori egiteko nahiko entzunda izan den arrazoietakoa bat (aurretik aipatutakoez gain) izan da alderdiaren batasuna bermatzearen beharra, baina baita, Cameronek jasotako *backbencher* ingelesezko presioak (Jensen, & Snaith, 2016). Hauek, 2015eko hauteskundeak baino lehen hasi ziren esaten Erresuma Batuek galdutako konpententziak berreskuratu beharko zituztela, batez ere merkataritza eta inmigrazio arloan. Orduan, alderdi kontserbadorearen barneko ahots euroseptikoak eta disidenteak isiltzeko, alderdiaren batasuna bematzeko, eta UKIPen gorakada gelditzeko, Cameronek zin egin zuen hauteskundeak irabaztekoan erreferenduma egingo zuela; eta, azkenean hauteskunde emaitza oso onak eduki zituzten, gehiengo absolutua irabazi baitzuten, Alderdi Liberala 56 eskainu izatetik 8 izatera igaro zen eta UKIPek ez zuen eserlekurik irabazi (Martino, 2017). Dena den, Lehen Ministroak ez zuen uste Brexita irabazi zezakeenik, uste zuen, Eskozian erreferenduma erabiltzea ondo atera zitzaion moduan, kasu honetan ere ondo atera ahalko zitzaiola, ondo azalduz Europaren abantailak, eta irteeraren inguruan beldurra sartuz (ibid.).

Bere alderdiaren barnean Batasunean geratzearen aldeko jarrera zutenak, Lehen Minsitroaz gain, bere gabineteko 16 kide ziren (21etik), alderdi liberala, Alderdi Laborista, Eskoziako Alderdi Nazionala eta Plaid Cymru. Ondoren, Alderdi Kontserbadorearen beste erdia ateratzearen alde zegoen, Alderdi Laboristaren parlamentari batzuk, eta batez ere, UKIP alderdia (ibid.).

Eta nolabait, alderdiak zatiturik darrai Brexitaren ostean. *The Independent* egunkariaren Editorialak dioen moduan (2016), Brexitaren inguruko milaka iritzi daude, baina arazoa da iritzi guzti-guzti horiek Kabinetean daudela; are gehiago, honen arabera, Boris Johnson, David Davis eta Liam Foxek Brexitaren gaineko ideia desberdinak dituzte. *Hard* edo *Soft Brexit*-a egokiagoa den, eta bi korrante hauen barruko azpikorranteak, denak dira Alderdi Kontserbadorean presente. Gainera, zatiketa afiliazioaren barnean ere badago, gehiengoa Brexitaren alde badago ere, Brexita aurrera eramateko moduak zatiketak ekar ditzakeelako.

2.3. David Cameronen 2015eko azaroko gutuna: Europar Batasunari baldintza zorrotzak jartzen.

Brexita gertatu aurretik, eta Brexita ahalbidetuko zuen *European Union Referendum Act 2015* akta aprobatu baino lehen (baina erreferenduma egongo zela aditzera eman ostean), Erresuma Batuko lehen ministro ohiak, David Cameronek, *A NEW SETTLEMENT FOR THE UNITED KINGDOM IN A REFORMED EUROPEAN UNION* izeneko gutuna idatzi zion Donald Tuski, Europako Batzordeko Presidenteari. Gutunarekin batera, Cameronek diskurtso bat egin zuen, bere hitzetan egunera arteko gogorrena izango zena, zeinean argi utzi zuen statu quo ez zela nahikoa hiritar britainiarrentzat, eta bere kideek bere eskakizunak errefusatzekotan, ezaren aldeko kanpaina egiteko prest egongo zela. Aldaketa “kosmetikoek” ez dute balioko, berak esandako moduan (Guimón, 2015).

Gutun honen eduki nagusia Europar Batasunaren 4 arlo hauetan erreformak egiteko proposamena da:

1. Gobernantza ekonomikoa: Eurogunearen integrazioaren aurrerapausoen aurrean, eurotik kanpo dauden herrialdeen interesak babesteko mekanismoak abian jartzea.

1. Economic Governance

I am confident we can achieve an agreement here that works for everyone. Britain is not seeking a new opt-out for the UK in this area – we have the opt-out from the single currency we need. Nor are we looking for a veto over what is done in the Eurozone. What we seek are legally binding principles that safeguard the operation of the Union for all 28 Member States – and a safeguard mechanism to ensure these principles are respected and enforced.



iturria: <https://www.theguardian.com/politics/2015/nov/10/david-camerons-eu-demands-letter-explained#img-2>

Legalki Europar Batasuna moneta bat baino gehiagoko eremutzat definitzea, euroguneak Erresuma Batua ez zanpatzeko merkatu bakarraren inguruko gaietan. Helburua da Londreseko hiriaren lehentasuna babestea Europako zentro finantzario moduan (Traynor, 2015).

2. Lehiakortasuna: Lehiakortasuna Europar Batasunaren DNAn grabatuta izatea, zeinak enpresen zerga karga murriztea ekarri behar duen.

2. Competitiveness

But with the best will in the world, we would all acknowledge that the EU can go much further. In particular, for all we have achieved in stemming the flow of new regulations, the burden from existing regulation is still too high. So the United Kingdom would like to see a target to cut the total burden on business.



3. Subiranotasuna: Geroz eta estuagoa den kolaborazioaren printzipioa alde batera uztea Erresuma Batuen kasuan, eta parlamentu nazionalak indartzea ez hitz politekin, baizik eta erreforma legal itzulezinekin.

3. Sovereignty

As you know, questions of sovereignty have been central to the debate about the European Union in Britain for many years. I have three proposals in this area.

First, I want to end Britain's obligation to work towards an "ever closer union" as set out in the Treaty. It is very important to make clear that this commitment will no longer apply to the United Kingdom. I want to do this in a formal, legally-binding and irreversible way.



Cameronek, Traynorren hitzetan (2015), alergia dio Europar Batasunaren "geroz eta kolaborazio estuagoa" joateko printzipioari, honek misio "federalista" baitu. Gainera, parlamentu nazionalak Europar Batasuneko legislazioaren gaineko beto aukera izatea ere eskatu zuen.

4. Pertsonen zirkulazio askearen eta laguntza sozialen inguruan: Pertsonen zirkulazio librearen printzipioaren gehiegikeriak aurrez aurre jartzea, eta Erresuma Batuari Europar Batasunetik datorren migrazioa kontrolatzen uztea.

4. Immigration

The UK believes in an open economy. But we have got to be able to cope with all the pressures that free movement can bring – on our schools, our hospitals and our public services. Right now, the pressures are too great.



Hau da, zalantza barik, punturik polemiko eta zailena. Honek dakar migrante europarrek ezin izango luketela laguntza estatalik eskatu lan bila dauden bitartean. Laguntzak eskatu ahal izateko, han bizi beharko dira eta behintzat zergak 4 urtez ordaindu behar izango dituzte. Gainera, 6 hilabetetan lanik aurkitu baldin ez badute, joatera behartuta egon daitezke. Margaritis Schinas, Europako Batzordearen bozeramaleak azkar adierazi zuen honek arazoak ekarriko zituela, zeinari Cameronek erantzun zuen modu malguan negoziatzeko prest egongo zela (Guimón, 2015).

2.4. Britainiar eskakizunei emandako erantzuna. Donald Tusken gutuna eta Europar Batzordearen konklusioak.

2016ko otsailean, Cameronek bere gutuna bidali zuenetik 2 hilabete igaro ostean, Europar Batzordearen presidenteak britainiarren nahiei erantzuteko gutuna idatzi zuen. Honetan, Europar Batzordearen konklusioak laburbildu egiten dira.

Gutunean Erresuma Batuarentzako erregimen berri bat aurkezten duela adierazten da, beti ere EBren unitatea mantentzeko asmoarekin. Aldi berean, hau lehen planteatutako lau atalei, banan-banan, erantzunez egituraturik dago.

Lehen puntuari erantzuteko, gobernantza ekonomikoaren ingurukoa, Europar Batasuneko erabaki proiektuak Batasun Ekonomiko eta Monetarioan dauden eta honetan ez dauden herrialdeen artean errespetu amankomuna egoteko printzipioak ezartzen dituela esaten du. Horrela, eurogunea indartzen jarraituko da, baina honetan ez dauden Estatu kideen eskumenak errespetatuz. Gainera, Erabaki proiektu honetan hau bermatuko duen mekanismo baten sorrera dago pentsatuta.

Lehiakortasunaren inguruan, hau handitzeko esfortzuak bikoiztuko direla adierazi zuen Tuskek, Erabaki proiektuan adierazitako moduan, legislazioa sinplifikatuz eta karga administratiboa murriztuz, enpresek izapide gutxiago edukitzeko helburuarekin.

Subiranotasunari buruzko puntuan, erabaki proiektuak Erresuma Batua integrazio politiko estuago batetara konprometiturik ez dagoela adierazten duela dio Tuskek, baina subsidio printzipioa indartzen du. Aldi berean, Estatu kideek lege proiektu bat kontsideratzeari uztea defendatzen duela dio, baldin eta parlamentu nazional batzuk honen aurka agertzekotan.

Azkenik, pertsonen zirkulazio askeari eta laguntza sozialen puntuaren inguruan, hasieratik esaten du gaur egungo itunak errespetatu behar direla, batez ere zirkulazio askearen eta diskriminazio ezaren printzipioak. Horregatik, honi konponbidea emateko, gaur egungo arauen interpretazioa argitu behar dela dio. Batzordearen Deklarazio proiektu bat egongo da, zeinak zirkulazio askeak eragindako gehiegikeriak hobeto landuko dituen. Gainera, Batasunaren Estatu buruen Erabaki proiektuak, seme-alabengatiko diru laguntzen inguruko legedia aldatzeko Batzordearen intentzioa azpimarratuko du. Azkenik, Europar Batasunetik datozen langile-oldeak pairatzen dituzten estatuei laguntzeko mekanismoak sortuko direla ere adierazten du.

2.4. Gutunen inguruko ondorioak.

Bi gutunak irakurri ostean, nahiko garbi dago zein posizio hartu duen bakoitzak. Cameronek indartsuaren papera hartu zuen, protagonista zorrotz eta exigente baten moduan hitz eginez, beste estatu-kideengan imaginatuko ez genituzkeen eskaerak eginez. Honen aurrean, Europar Batasunak, esan genezake paper otzana eduki zuela, nolabait Erresuma Batuaren eskakizuniei men eginez.

3. BREXITaren bozketa: emaitzen analisia

3.1. Analisia nazioz-nazio.

Modu desberdinak daude Brexitaren emaitzak aztertzeko. Alde batetik, nazioa har dezakegu klabe moduan, Ingalaterra, Eskozia, Ipar Irlanda eta Gibraltarrek zer bozkatu duten ikusiz, zeinak emaitzen zergatiaren irudi bat emango digun; bestalde, boza emaileen profila aztertzea oso garrantzitsua da, pertsona mota bakoitzak zer bozkatu duen jakingo dugulako, adina edo ikasketa maila bezalako aldagaiak aztertuz. Horrela, nire aburuz, bozketaren irudi nahiko zabala edukiko dugu, errealitatea ulertzeko oso baliagarria izango zaiguna.

Nation results

England




Northern Ireland



Scotland



Wales



Key:
■ Majority leave ■ Majority remain
■ Tie □ Undeclared

1. Irudia: Brexit emaitzak lurraldeka. Iturria:
http://www.bbc.com/news/politics/eu_referendum/results

2. Irudia: Brexit emaitzak. Iturria:
http://www.bbc.com/news/politics/eu_referendum/results

Lehenik eta behin, grafikoari gainbegirada bat emanez gero, arreta deitzen duen lehen datua da bai Ingalaterran eta bai Galesen, irtetzeak irabazi duela, eta Eskozian eta Ipar Irlandan, aldiz, geratzearen alde bozkatu dutela gehien bat. Herrialde bakoitzean, faktore desberdinak direla eta, aukera bat edo bestea bozkatu dute. Honen zergatiak zeintzuk diren azaltzen saiatuko naiz.

3.1.1. Ingalaterra.

Ingalaterrako kasuan, populazioaren %53.4ak Brexitaren alde bozkatu du, lurralde honetan izan du babes gehien. Askoren ustez, Brexitek erlazio zuzena du nazionalismo ingelesarekin. Erreferenduma izan baino lehen, 2016ko ekainaren 19an hain zuzen ere, Fintan O'Toolek The Guardian egunkarian honako hau esan zuen:

When you strip away the rhetoric, Brexit is an English nationalist movement. If the Leave side wins the referendum, it will almost certainly be without a majority in either Scotland or Northern Ireland and perhaps without winning Wales either. The passion that animates it is English self-assertion. And the inexorable logic of Brexit is the logic of English nationalism: the birth of a new nation state bounded by the Channel and the Tweed.¹⁰¹¹

Autore honen arabera, *leave*-ak irabazteak, Ingalaterraren independentzia automatikoa suposatuko luke, nahigabekoa bada ere, bai Eskoziak eta bai Ipar Irlandak alde egin nahi izango dutelako.

Independent egunkarian, Patrick Cockburnek (2017) Brexita nazionalismo ingelesaren hezurmamitza dela dio. Ingalaterrako biztante askok eta askok Ingeles eta Britainiar identitateak nahastu egiten dituzte, Erresuma Batuko beste sentimendu nazionalak alde batera utziz; honek, Cockburnen arabera, batasunaren komunitate sentimendua suntsitzeko ahalmena du, uharteetako beste nazioekin konfrontamendua izatera eramaten baitu.

Brexita nazionalismo ingelesarekin lotuta dagoela ikusteko, Theresa May-k adierazitako esaldi batzuk har ditzakegu; izan ere, honek, Nicola Sturgeonek Eskozian independentziaren inguruko bigarren erreferendum bat egitea proposatzerakoan, May-k "gure herrialdearen etorkizunarekin jolasteari uzteko" erantzun zion. Beraz, Cockburnek honako galdera hauek planteatzen ditu: Zein da "gure herrialde" hori? Eta herrialde hori Erresuma Batua baldin bada, zergatik Brexitaren aldekoek Eskozia edo Ipar Irlandan dagoen irteeraren aurkako sentimendua ez dute kontutan hartzen? Ez al dira ere iritzi baliiodunak? Salatzen duen beste arazo bat da, ingelesek ez dutela haien nazionalismoa ikusten, bakarrik besteena existituko bailitzan, eta gainera, gogor kritikatzeko dute bigarren hau.

Nazionalismo ingelesaren elementu zentralak subiranotasunaren defentsa eta europar integrazioaren aurkako postulatuak dira, baina, lehen aipatutako moduan, nazionalismo ingelesa Erresuma Batuen defentsaren atzean ezkututzen da askotan. Gainera, ikuspegi honek erroak historian ditu (Wellings, 2012). Wellingsen arabera, hauek dira gaur egungo nazionalismo ingeles modernoaren oinarriak:

1. 70eko hamarkadan, merkatu Komunean sartzeko erreferendumean sortu zen debatean, Europaren aurkako argudio asko eta asko plazaratu ziren. Esate baterako, *kontinentalek*

¹⁰ <https://www.theguardian.com/commentisfree/2016/jun/18/england-eu-referendum-brexit>

¹¹ *Retorika alde batera utzita, Brexita nazionalismo Ingeleseko mugimendua da. Leave sketoreak erreferenduma irabaztekotan, ia ziurtasun osoz Eskozia, eta Ipar Irlandan gehiengoa izan gabe izango da, eta izan liteke Galesen ere irabazi barik. Hau aurrera eramaten duen autoafirmazio Ingelesa da. Eta Brexitaren logika tinkoa nazionalismo ingelesaren logika da: nazio berri baten jaiotza, Kanalak eta Tweed-ak mugatua. (Itzulpen propioa)*

ez zutela ulertzen subiranotasun parlamentarioa zer zen, edo hegoaldean gezurtiak zirela... Europarekiko kontraktotasuna eta ezkortasuna sortzen duten hitzak dira.

2. Thatcherren garaian, jaiotzen ari zen nazionalismo ingelesari konponente oso individualista eta antieuroparra gehitu zitzaion.
3. Europar integrazioaren aurkako sentimendua, eta *Devolution* prozesuak, nazionalismo ingelesaren jaiotza eragin zuten.
4. Imaginazio kolektiboan, Europa, gainbehera britainiar eta ingelesaren adierazle instituzionaltzat ikusten da.

Brexita mugimendu ingeles moduan defini dezakegu zentzu handi batean, guztiz horrela ez izan arren, beste faktore sozioekonomiko askok eragin izan baitute, baina identitate ingelesak, zalantza barik, paper garrantzitsu bat jokatu du honetan.

Argi dago beste faktore batzuek eragina izan dutela; nire ustez, horien artean garrantzitsuena garrantzitsuena maila sozioekonomikoa izan da. Ingalaterran daude kokatuta Erresuma Batuko industria gunerik garrantzitsuenak; hain zuzen ere, krisi ekonomikoa gehien pairatu duten gunek. Lehen maila ertaineko pertsonak zirenak, langabeak eta txiroak izatera igaro dira, alde batetik Europar Batasunaren politika neoliberalak direla eta. Pertsona horiek, aurretik aipatutako *prekariadoa* dira.


Hiri industrial hauen adibideak Blackpool, Sunderland, Burnley, Telford¹²... eta beste asko eta asko dira. Izendatutako hauetan, brexitek bozen %67.46, 61.34, 66.61 eta 63.22¹³arekin irabazi du, hurrenez hurren. Adibide gutxi badira ere, asko esaten dutela uste dut. Dena den, denbora faltagatik honetan ezin naiz luzatu.¹⁴

¹² <http://www.citymetric.com/business/factory-towns-which-british-cities-still-have-big-manufacturing-industries-1540>

¹³ <https://www.theguardian.com/politics/ng-interactive/2016/jun/23/eu-referendum-live-results-and-analysis>

¹⁴ Gehiago jakiteko, aurreko iturrietara jo.

3.1.2. Ipar Irlanda



Key:

■ Majority leave ■ Majority remain


■ Tie □ Undeclared

Ipar Irlandan, biztanleen %55'8ak *Remain*-aren alde bozkatu zuen, eta gehiengo oso handia ez bada ere, badituzte bere arazoak, bai politikoak, ekonomikoak, historikoak eta sozialak; izan ere, Ipar Irlanda *cleavage* asko dituen lurraldea da, batez ere arlo identitarioan. Bozka eta identitatearen arteko lotura nahiko argia da, zeinean, eremu katolikoetan eta irlandar sentimendukoetan *remainak* irabazi duen, eta eremu protestante eta britainiarretan brexidak.

Irudian ikusten den moduan, irteteeraren alde Ulsterreko iparraldeko distritoetan bozkatu da, hain zuzen ere haueetan portzentai hauekin:

- a) North Antrim: %62.2a
- b) East Antrim: %55.2
- c) South Antrim: %56.2
- d) Upper Bann: % 52.6
- e) Lagan Valley: %53.1
- f) Strangford : % 55.5
- g) Belfast East: % 51.4

Identitate Nazionala distrietoen arabera:



4. Irudia: Identitate Britainiarra Ipar Irlandan. Iturria:


[http://www.ninis2.nisra.gov.uk/InteractiveMaps/Census%202011/National%20Identity%20\(Classification%201\)%20KS202NI/atlas.html](http://www.ninis2.nisra.gov.uk/InteractiveMaps/Census%202011/National%20Identity%20(Classification%201)%20KS202NI/atlas.html)

- a) North Antrim: %53.77a
- b) East Antrim: %56.65
- c) South Antrim: %49.98
- d) Upper Bann: % 42.19
- e) Lagan Valley: % 56.17
- f) Strangford : % 57.48
- g) Belfast East: % 57.16

Iturria¹⁵

Erlijio katolikoa praktikatzen duten pertsonen portzentajea hauteskunde barrutiekiko:

¹⁵ [http://www.ninis2.nisra.gov.uk/InteractiveMaps/Census%202011/National%20Identity%20\(Classification%201\)%20KS202NI/atlas.html](http://www.ninis2.nisra.gov.uk/InteractiveMaps/Census%202011/National%20Identity%20(Classification%201)%20KS202NI/atlas.html)



5. Irudia: Ipar Irlandako populazio protestantearen banaketa. Iturria: <http://cain.ulst.ac.uk/images/maps/2001religionwardsni1.jpg>

Ipar Irlandako distritoen identitate nazionala eta erlijioa aztertuz gero, errez ikusten da gehienetan Brexitaren alde bozkatu duten eremuetan britainiar identitatea eta protestantsimoa nagusi direla. Europar Batasunetik irtetearen alde iparraldeko eremuak bozkatu du batez ere, zeinean britainiar jatorria duten biztanle gehiago dagoen; hala ere, honetaz gain, beste faktore batzuek ere eragin dute, bestela ezingo genuke azaldu zelan, adibidez, Belfast East-en, zeinean populazioaren %57.16a britainiarizat duen bere burua, (Strangforden ostean identitate britainiar indartsuena duen lurraldea), bozkatzerako orduan bakarrik %51.4ak alde bozkatu zuen, portzentairik baxuena. Arrazoi ekonomikoak eta historikoak daude honen atzean.

Arrazoi historikoen atzean, Belfasteko kasua adierazgarria da; izan ere, 3 lurraldeetatik batek bakarrik bozkatu badu irtetearen alde, gutxigatik irabazi du, nahiz eta populazioaren identifikazio nazionala oso banatuta egon. Iragan gertuan bizitako esperientzia traumatikoek geratzearen alde bozkatzea eragin du, Belfasten, bereziki, gorrotoarekin zerikusia duten gertakari bortitzak bizi izan dituztelako duela ez asko, hain zuzen ere identitate banaketa sakon baten ondorioz.

Arrazoi politikoak ere anitzak dira; garrantzitsuenetariko bat da Europar Batasuna Ipar Irlandaren eta Irlandako Errepublikaren arteko mugaren existentzia lausotu duela, eta besteak beste, Europar Batasunak bake prozesurako laguntzak eta proiektuak sustatu dituela, PEACE programaren bidez. John Bruton, Irlandako Lehen Ministro ohiaren hitzetan, Ipar Irlandako bake prozesua itzulgarria dela, eta Erresuma Batuak hau ez duela kontutan hartzen. Ipar Irlandan Europar Batasuna bakea eta batasunarekin loten dira, hauek, oso balore garrantzitsuak direlarik horrelako bizipenak izan dituen herrialde batentzako.

Bestalde, unionisten eta nazionalisten arteko erlazioak txarrera eramango lituzke. (Sandschneider; Wolff, 2014, 32. orr.)

Arrazoi ekonomikoek ere pisua izan dute bozkatzerako orduan. Bi Irlandan arteko lotura ekonomikoak oso sakonak dira, Europar Batasunaren markoan hartu-eman hauek sustatu direlako, eta marko honetan, erraztasun oso handiak izan dituzte; gainera, Erresuma Batuko beste eremu batzuetan hain kritikatuak izan diren Nekazaritzarako Europar Diru Laguntzak, Ipar Irlandarentzat oso lagungarriak izan dira (hain zuzen ere 300 milioi euro jaso izan ditu urtero), eta baita fondo erregionaletatik, Gainera, Ipar Irlandako lider politikoen arabera, ondasun eta pertsonen zirkulazio libreari oztopoak jarriz gero, Ipar Irlandako ekonomia ezegonkortuko luke, jada nahiko ahula delako. Europar Batasunaren markoan ipar-hego kooperaziorako proiektu anitz sortu dira, esate baterako, nekazaritza eta nekazal garapenean, ingurumen arazoetan, osasungintzan eta garraiobideetan. Sektore hauetako kooperazio oso onuragarria da bi aldeentzat, baina apurtuko liratekeenak baita Irlanda eta Erresuma Batuen arteko bidai area komunak jarraituko balu ere (Ibid.).

3.1.3. Eskozia

Eskoziaren kasua berezia da; izan ere, Brexitaren erreferenduma baino bi urte lehenago, Eskoziaren independentziaren inguruko erreferenduma ospatu zen, zeinean Ez-ak irabazi zuen gutxigatik, bozen %55.3arekin hain zuzen ere. Lurrealde honetan, Brexita eta independentziaren auzien arteko lotura oso garrantzitsua da, independentzia erreferendumean Ez-aren aldekoek erabili zuten arguidoetako bat izan zelako Eskoziak Erresuma Batutik alde egitekotan, Europar Batasunetik kanpo ere geratuko zela; honek pisu handia izan zuen bozkatzeko orduan, eta balantza Ez-aren alde jarri zuen.

Hori dela eta, Eskoziak Europar Batasunean geratzearen alde bozkatu du modu argian, duela bi urte izandako bozketan independentziari EZ esan ziotelako European jarraitu ahal izateko. Gainera, orain, eskoziar askok eta askok uste dute bidegabekeria bat dela Erresuma Batua osoa Europar Batasunetik atera behar izatea, horregatik beste erreferendum bat eskatzen hasi dira.



Eskoziak izan da *Remain*ak boza gehien irabazi dituen lurraldea; izan ere, lurralde honetako populazioaren %62ak geratzearen alde bozkatu du, eta gainera, zinkunskripzio guztietan irabazi du EZak.

6. Irudia: Brexit emaitzak. Iturria: http://www.bbc.com/news/politics/eu_referendum/results

Table 1 Support for Remain by Age Group and Educational Attainment, Scotland and England & Wales

% voted Remain in:	Age Group			Educational Attainment			
	18-34	35-54	55+	None	Standard Grade or Less	Higher or Equivalent	Degree
Scotland	73	60	54	41	47	63	74
England & Wales	67	47	41	26	35	54	64

Source: 2015 British Election Study Internet Panel Wave 9. Non-voters excluded from the denominator


7. Irudia: Brexit emaitzak. Iturria: <http://blog.whatscotlandthinks.org/2016/10/why-did-scotland-vote-to-remain/>

John Curtice-n hitzetan, Eskozia Eurozaleagoa da orokorrean. *The Academic British Election Study*-ren datuetan oinarritu da bere analisia egiteko; datuak ateratzeko, Brexitaren inguruko galdera berdinak egin ziren Eskozian eta Ingalaterran eta Galesen, eta hauetan, Curtice-ek azpimarratzen du Ingalaterran eta Galesen adinak eta ikasketa mailak eragin handia izan duela bozkatzerako orduan, gazteenek eta hezkuntza maila altukoek *remainaren* alde bozkatu duten heinean, baina Eskozian, ez da fenomeno hori ematen, ia denek *remain*-aren alde bozkatu zutelako, adina edo ikasketa mailak influentzia hain handia ez dutelarik; hala ere, egia da geroz eta adin gehiago izan, orduan eta *remainaren* aldeko gutxiago daudela, eta aldi berean, hezkuntza maila basikoa edo hezkuntza maila gabekoek Brexitaren alde bozkatu zutela, baina Ingalaterra eta Galeseko emaitzekin aldentuz, desberintasuna oso nabaria da, irudian ikus daitekeen moduan.

Bere ustez, azalpen posible bat da eskoziarrak ez dauela *Brexitaren* ondorioetaz hain "maiteminduta", hau da, eskoziar askoren ustetan ondorioak txarrak izan liratekeela. Adibidez, eskoziarren %41ak uste zuen Erresuma Batuaren egoera ekonomiko orokorra txarragoa izango zela, Brexitaren ostean; aldiz, Ingalaterran eta Galesen %34ak uste zuen hori. Bestalde, Ingalaterra eta Galesen %47ak uste zuen Europar Batasuneko kide izateak Britainiar identitate berezia hondatu egiten zuela, eta Eskozian, %39ak (Curtice, 2016).

Aipatzen duen azken faktorea alderdi politikoak dira. Hauek eragin handia izan dute bozkatzeko orduan, batez ere SNP alderdiak. Alderdi honek babes handia izan du azken urteetan, eta jende asko mobilizatzea lortu izan du bai independentziarako erreferendumean, eta bai Brexitaren erreferendumean ere, azken honetan *remainaren* alde kanpaina eginez.

3.2. BREXITaren erreferendumean bozkatu duten boza-emaileen profila



8. Irudia: Brexit emaitzak. Iturria: <https://www.theguardian.com/politics/ng-interactive/2016/jun/23/eu-referendum-live-results-and-analysis>

Grafiko hauetan errez ikusi ahal da zein izan den *Leave* eta *Remain*-aren alde bozkatu duten pertsonen profila. Hezkuntzari dagokionean, lehen grafikoan argi ikusten da *remain*aren aldekoak edukazio maila altuagoak direla, eta kualifikaziorik ez dutenen gehienek Europar Batasunetik irtetzearen alde egin dutela. Soldadari dagokionean, klase ertain-baxuak eta baxuak irtetearen aldekoagoak izan dira, eta klase ertain-altuak eta altuak, irteeraren aurkakoak izan dira gehien bat. ABC1 gradu soziala aztertuz gero (zeina Erresuma Batuan klaseak sailkatzeko erabiltzen den metodo bat den), berriz ere ikusten da klase altuek brexitaren aurka egin dutela gehien bat. Ondoren, adina behatuz, adinekoenak Brexitaren alde bozkatu dute orokorrean. Azkenik, Erresuma Batuan jaio ez diren pertsonak aztertuz, nolabait harrigarria da ikustea pertsona askok Brexitaren alde egin dutela, baina, hala ere, gehiengoak aurka egin du.

Beraz, Brexitaren alde egin duen pertsonaren profila hau dela esan genezake: Erresuma Batuan jaiotako pertsona, hezkuntza maila baxukoa, klase ertain-baxukoa eta gainera adin nagusikoa. Hau da, lehen aipatutako **prekariadoaren** profila.

4. Europar Batasuna eta Erresuma Batuaren arteko harremanak etorkizunean. Dibortzioaren osteko erlazio aukera posibleak.

Aurreko ataletan Brexita zer den azaltzen saiatu naiz, nondik datorren uler, eta nola bozkatu den jakin dezagun; hala ere, oraindik ez dut azaldu etorkizunean zer gerta daitekeen, zein modutan atera daitekeen Erresuma Batua Europar Batasunetik, eta zeintzuk izan daitezkeen etorkizuneko eszenatokiak, bai Europar Batasunaren izaera zein izan daitekeen aztertuz, eta bai honek Erresuma Batuarekiko eduki dezakeen harremana aztertuz. Atal honen helburua, dena den, ez da etorkizunean zer gertatuko den asmatzea, baizik eta aukera desberdinak mahaigaineratzea; izan ere, oraindik eman ez diren gertakari askok eragina izan dezaketelako.

Erresuma Batuak hartu ditzakeen bideen inguruan asko hitz egin eta idatzi da, eta bai prentsan, bai telebistan, gehien entzun ditugun bideak edo etorkizuneko eszenatokiak hiru izan ohi dira: Norvegiar eredia jarraitzea, suitzar eredia jarraitzea, edo hirugarren estatu bihurtzea. Haei bide "ohikoak" deitu ahal diegu. Hala ere, Europar Batasuna, bere osotasunean, fenomeno oso berria da, oso prozesu aberatsa, eta zentzu batean, laborategi baten modukoa; hau da, esperimentatzeko aukera badago. Horregatik, hiru bide edo eszenatoki daudela esatea oso mugatuta dagoela esan daiteke, egoera oso anitz, desberdin eta berrietan egon gintezkelako etorkizunean.

4.1. Ohiko Eszenatoki posibleak.

Werner Kühnek, bere "Aspectos jurídicos y perspectivas políticas de un posible retiro de la Unión Europea por parte de Reino Unido" artikuluan, Erresuma Batuak Europar Batasunetik ateratzeko dituen zazpi bide posible azaldu egiten dizkigu ikuspuntu juridiko batetatik. Interesgarria da ikustea aukerak ez direla hiru eszenatokitara mugatzen, nahiz eta, bide konbentzionalak direla esan dezakegun; izan ere, beste aukera batzuk ere egongo lirateke.

Hasieratik gure buruari itaun diezaiokegun galdera bat honako hau izan daiteke: nola eta zergatik atera ahal da estatu bat Europar Batasuna bezalako antolakuntza supranazional batetatik? Kühn-ek, bere artikulua lehen orrietatik azaltzen digu: Estatu eta Organizazio Internazionalen arteko edo Organizazio Internazionalen arteko Itunen Zuzenbidearen buruzko Vienako konbentzioak, zeinak nazioarteko ohiturazko eskubidea kodifikatzen duen, bere 54. Artikuluan dio itun baten amaiera bi kasu hauetan gerta daitekeela:

- a) Itunaren disposizioen arabera.
- b) Edozein momentutan, itunaren parte guztiak, Estatuak eta organizazioak, kontsultatu ostean eta hauek oniritzia eman ostean.

Eta Europar Batasunaren kasuan, lehen aukeran kokatuko ginateke; izan ere, Europar Batasunaren Itunaren 50. artikuluan, edozein estatu kide, bere norma konstituzionalen arabera, EBtik ateratzeko aukera duela adierazten da. Erabaki hau guztiz unilaterala da, justifikaziorik behar ez du eta beste estatuak ezin dira aurka azaldu (Kühn Baca, 2015, 107 eta 108. orr.).

Artikulu horretan, beste hautazko prozedimendu bat adierazten da, zeinak alde egiten duen Estatuaren eta Europar Batasunaren arteko akordio bat egiteko aukera ematen duen. Akordiorik ez egotekotan, bi urteko epean Estatuak modu automatikoan erretiratu beharko litzateke (ibid.).

Negoziaketa prozesuan, Erresuma Batua eskubide guztiak dituen herrialdea izaten jarraituko du ikuspuntu juridiko batetatik, Europar Batasuneko beste edozein herrialderen moduan, baina praktikan, erabaki eta influentzia botere mugatuak izango ditu. Prozesu hau luzea izango da, Erresuma Batua Europar Batasunean 40 urtez egon baita, eta honek lotura asko eta asko sortu ditu bien artean, zentzu eta arlo askotan interdependentzia gradu oso altuak daudelarik; horiek desagitea, eta hauei forma berria ematea prozesu zaila izango da; horregatik, batzuen ustez negoziaketek 2 urte baino gehiago iraun dezakete. Negoziaketen luzapen hau artikulo berak aurreikusten du (Kühn Baca, 2015, 110. orr.).

Werner Kühn-en arabera, Batasuna uzteko 7 bide daude, baina bere ustetan, bat ere ez litzateke onuragarria izango. Hauek dira berak proposatutako bideak:

4.1.1. Estrategia sektoriala:

Bide honen funtsa honako hau izango litzateke: Erresuma Batuak Europar Batasunak ematen dizkion onurak mantentzea, koste finantzari, ekonomiko, legal eta politikorik gabe, Brexit kanpainen zehar hainbeste erreklamatu den subiranotasun nazionala berreskuratuz. Hau da, Britainarrek komeni zaizkien Europar politikak hautatuko lituzkete (Kühn Baca, 2015, 114. orr.).

Dena den, horrelako akordio batetara iristea oso zaila edo ezinezkotzat hartzen du autoreak, lehenik eta behin, Erresuma batuaren botere negoziatzailea murrizta izango litzatekelako; Europar Batasunak ez luke Erresuma Batuak bezainbeste galduko, eta gainera, lehenak erraldoi ekonomiko bat izaten jarraituko luke. Gainera, Europa horrelako estrategia bat ekiditen saiatuko litzateke, ez baitzaio horrelakorik komeni. Hau onartzekotan, beste estatu askok horrelako eredu bat jarraitzea eska zezaketen, zeinak kaosa ekarriko lukeen.

Bestalde, Europar Batasunak Britainiarrek hartutako obligazioen kontrola ezarriko luke, zeinean Londresek ez luke botererik izango, eta aldi berean, legiazioa errespetatu eta onartu beharko luke honen sortze prozesuan inolako eraginik izan gabe. Are gehiago, Londresen gehien interesatzen zaion arloan parte hartzeak (merkatu bakarra, alegia), kontribuzio ekonomiko handi bat egitea suposatuko luke, eta horrelako aportazio ekonomikoak izan dira hain zuzen ere, Britainiarrek alde egitea erabakitzeko eragin duen arrazoietakoa bat (Kühn Baca, 2015, 115. orr.).

Baina, gainera, merkatu bakarrean geratzea nahi izatekotan, itun berriak Europar Kontseiluaren onspena eduki beharko luke, zeinean herrialde bakoitzak bere interesen alde egiten duen, eta ondoren Europar Parlamentuak ere onartu beharko luke (beto ahalmena duelarik). Baina hor ez litzateke amaituko, zeren eta, *EFTA*ko herrialdeek honetan ere parte hartzen dute, beraz, hauen onspena ere beharrezkoa litzateke (ibid.). Azkenik, 218. Artikuluaren arabera, Estatu Kide batek, Europar Parlamentuak, Kontseiluak edo Komisioak Justizia auzitegiaren diktamen bat eska lezakete, itunen arteko konpatibilitatearen inguruan. Beraz, prozedura oso oso zaila da (Kühn Baca, 2015, 116. orr.).

4.1.2. EEEen sartu, EFTAren bidez.

EEE akordioak EFTA-ko hiru estatuari (EBko gainerako 27 estatuez gain) barne merkatuan egotea ahalbidetzen die, eta 4 askatasunetan parte hartzea, baina beste politika batzuetako obligazioetara atxikitu barik, esate baterako nekazaritza edo arrantza politikak. Akordio honetan dauden herrialdeek, dena den, barne merkatuaren inguruko politikan dauden aldaketak onartu behar dituzte, hauetan parte hartzeko aukerarik eduki gabe (ibid.).

Baina, azkenaldian arazoak egon dira EEEan, izan ere, Kanpo ekintzetarako Zerbitzu Europarrak eta Europar Komisiokoak akto juridiko berriak aplikatzerako orduan EFTA estatuen atzerapenak salatu zituzten. Arazoa da barne merkatuak ondo funtziona dezan, ziurtasun juridikoa beharrezkoa dela, eta akto juridiko guztiak honetan parte hartzen duten estatu guztietan, bai Europar Batasunekoetan, bai EFTAkoetan, ia aldi berean aplikatu beharko litzatekeela.

Hala eta guztiz ere, kasu honetan arazoak Erresuma Batuen eskutik etor litezke ere; izan ere, Europar Batasunetik gaitzetsi dituzten aspektu asko berreskuratzea suposatuko luke aukera honek:

1. Barne merkatuaren inguruko legedia bere barne legedian sartu beharko luke, honetan eragiteko ahalmenik gabe.
2. EFTAk aho bakarrez hitz egiteko beharra du. Horrenbestez, Erresuma Batua erabakiak modu bakarrean hartzeko aukerarik gabe geldituko litzateke.
3. EFTAren Zaintza Autoritateak eta EFTA tribunalak, kompetentziak dituzte, eta EFTA herrialdeak hauen menpe daude.
4. Europar Batasunari diru kantitate handi bat ordaindu behar zaio, ia Europar Batasuneko estatu kide baten moduan (Erresuma Batuen kasuan, Txekeri gabe).

Gainera, beste eragozpen bat dago, EEEan sartzeak 30 herrialderen onspena beharko lukeela, Europar Batasuneko 27ak gehi EFTAko 3 herrialdeak (Kühn Baca, 2015, 118. orr.).

4.1.3. EFTAko kide bihurtu, baina EEEen sartu gabe.

EFTAn soilik sartzea beste aukera bat da. Hala ere, EEEak izan duen garapena eta Suitzaren eta EB-aren arteko harreman indartsuak direla eta, Europar Batasunaren eta EFTAren arteko merkataritza libreko akordioa hutsik geratu dela esan daiteke, honen barnean geratzen diren arloak arrain merkatua eta nekazaritza produktu batzuk dira eta, zerbitzuak eta beste merkantzia batzuk honetan sartu barik (Kühn Baca, 2015, 118. orr.).

Bestalde, EFTAko kide izateak ez du suposatzen honen estatu kideen eta beste estatu batzuen arteko merkataritza akordioetan parte hartzeko eskubide automatikoa (Kühn Baca, 2015, 119. orr.).

4.1.4. Suitzar estrategia jarraitu.

Suitza eta Europar Batasunaren artean akordio bilateral anitz daude, 120 eta 130en artekoak, eta Erresuma Batua saia daiteke eredu bera bere egoerara aplikatzen. Baina, behatzaile askoren arabera, gerta liteke Erresuma Batuek berak hasieratik aukera hau alde batera uztea, Suitzak ez baitu akordiorik zerbitzu finantzarioen eta zerbitzuen arloan, eta hau da, hain zuzen ere, Erresuma Batuentzat arlorik interesgarriena, izan ere, honen eta Europar

Batasunaren merkataritzaren bi bosten zerbitzuen arlokoa da, zeinak diru asko eta asko ekartzen dion (Kühn Baca, 2015, 119. orr.).

Baina, behatzaile berdinek ere Erresuma Batuak edukiko lukeen abantaila nagusi bat azpimarratu egiten dute, bien artean sinatutako akordio hauek nazioarteko zuzenbide klasikoaren menpe egongo zirela, beraz, ez luke nazioarteko gorkeen sententziak zertan bete behar, ez Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren menpe, edo EFTAko Tribunalaren menpe.. Hala eta guztiz ere, alde txarra ere badu, askotan Suitzak Europar Batasuneko erregelamendu eta direktibak errespetatu behar dituelako (baita Justizia Auzitegiaren interpretazioak ere), honetan parte hartzeko aukerarik eduki gabe (ibid.).

Hala ere, ez dirudi Europar Batasuna beste herrialde batekin horrelako akordio bat aurrera eramateko prest dagoenik; izan ere, EBk 2010etik akordio honekiko bere poz eza adierazi du, eta Europar Batasuneko Kontseilua honako hau esatera heldu zen: “sistema hau konplexua eta administratzeko zaila bihurtu da, eta modu argian bere limiteetara heldu da” (ibid.).

Gainera, 2014an Suitzarekin zituen negoziaketa garrantzitsu asko berrabiarazi behar izan zituen, hauen bien arteko marko instituzional bat sortzeko helburuarekin, non Europar Batasuneko instituzio askok boterea eta kontrola izango duten. Beraz, aukera honek zaila dirudi, bai Europaren aldetik, eta instituzionalizazio prozesu honekin jarraitzekotan, bai Britainiarren aldetik ere (Kühn Baca, 2015, 115. orr.).

4.1.5. Europar Batasunarekin merkataritza libreko akordioa sortu.

Kasu honetan, munduko herrialde ia guztien moduan, Erresuma Batua Europar Batasunarekin merkataritza libreko edo asoziaziorako akordio bat negoziatzen hasiko litzateke; hala ere, eta autorearen arabera, honek seguraski ez litzateke ez bata ez bestearen interesak guztiz asetuko, batez ere ez delako existitzen honetarako beharko litzatekeen akordio bezain handirik, eta gainera, bigilantzia mekanismo eta instrumentu juridiko berriak sortu beharko lirateke Europako barne merkatura sarbidea edukitzeko helburuarekin. Gainera, seguraski Europar Batasunak Erresuma Batuari bere legedi, itunen, deklarazio edota erresoluzioen parte bat aplikatzea behartuko lioke, batez ere lan merkatuaren, osasungintzaren, kompetentziaren, produktuen estandarren, kontsumitzailearen babesaren eta beste aspektu askoren inguruan. Izan ere, hori egin barik, ez dirudi Europar Batasunak akordiorik sinatuko lukeenik (ibid.).

Bestalde, Erresuma Batuak Europar Batasunaren kontestuan hirugarren estatu batzuekin zituen bestelako akordio batzuk berregin beharko litzuzke, baina zaila izango litzateke egoera berrian europar kontestuan dituen akordioak bezain onuragarriak izatea, Erresuma Batuaren botere negoziatzailea askoz ere txikiagoa izango baitzen; izan ere, maila globalean bere ondasun eta zerbitzuen esportazioak bakarrik %3 edo 4a suposatzen dutelako, Europar Batasunarena %15etik %25erakoa den bitartean (Kühn Baca, 2015, 116. orr.).

4.1.6. Aduana Batasuna

Turkia eta Europar Batasunaren artean Aduana Batasuna dagoen moduan, Erresuma Batuak bide hau ere kontsidera lezake. Kasu honetan, Erresuma Batuak ezingo luke bere tarifa propioa ezarri, eta Batasunaren erabakiak merkataritza politika komunaren inguruan onartu beharko litzuzke ezer esan barik. Gainera, hirugarren estatu batzuekin EBak dituen akordio preferentzialak errespetatu beharko litzuzke, Europar Batasuneko legediaren zati bat errespetatu beharko luke, ez litzioke barne merkaturako atea zabalduko eta ez luke zerbitzuen eremua

barne hartuko, Erresuma Batuarentzat klabea den sektorea, aurretik aipatutako lez. Beraz, bide honek ez ditu Erresuma Batuaren nahi eta beharrak asetzen (ibid.).

4.1.7. Europar Batasunarekiko hirugarren estatu bihurtu.

Zazpigarren aukera honetan, Estatu Batuen, Txina edo beste estatu askoren moduko estatusa lortzen saiatuko litzateke Erresuma Batua, Europar Batasunarekiko hirugarren estatu moduan. Kasu honetan, Britainiarrek ez lukete Europar legedia aplikatzeko beharrik edukiko, baina Europar Batasunera esportatzeko, azken honen estandarrak oraindik errespetatu beharko litzuzke (Kühn Baca, 2015, 121. orr.).

Europar legediaren kentzeak Britainiar legedian utzitako hutsunea, lege berriekin bete beharko litzateke; muga berriak sortu beharko lirateke (batez ere Irlandarekin); Merkataritzaren arloan, Munduko Merkataritza Erakundearen zuzenbidearen menpe geratuko litzateke, beraz, Europar Batasunarekin (eta honen bidez beste herrialde batzuekin) aldeztu zituen 200 akordio baino gehiago bernegoziatu beharko litzuzke (Kühn Baca, 2015, 122. orr.).

Kontestu honetan egindako edozein akordiotan, gainera, Erresuma Batuaren negoziaketa boterea ere txikiagoa izango litzateke, lehen aipatutako moduan, Europar Batasunak botere askoz ere handiagoa baitu. Bestalde, MMEaren parametroetan, zaila da zerbitzuen arloa liberalizatzea, eta hau da hain zuzen ere Britainiarrei gehien interesatzen zaiena (ibid.).

4.2. Lankidetzaren Kontinentalerako Proposamena

Aurreko puntuan etorkizunean Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren arteko harremanen eszenatoki "arruntenak" azaldu ditut; hau da, orokorrean denok irakurtzeko aukera izan ditugunak. Hala ere, lan asko daude proposamen oso interesgarr, berri, eta nolabait, irakurtzen dugun literatura orokorretik ateratzen direnak; horietako bat hurrengo lerroetan azalduko dudana da, maila pertsonalean arreta eta interesa piztu didana.

Jean Pisani-Ferryk, *Hertie School of Governance* irakaslea, Norbert Röttgenek, Alemaniako Bundestageko Kanpo Gaietarako Komitearen presidentea, André Sapirek, Bruselako Unibertsitate Libreko irakaslea eta Bruegel think-tankaren senior kidea, Paul Tucker-ek, Gobernantzarako Harvard Kennedy Schooleko eta Arrisku Sistemikoaren Kontseiluko kidea eta Guntran Wolffek, Bruegeleko presidentea, Europar Batasunaren eta Britainia Handiaren etorkizunerako eredu bat sortu dute, kontinentean maila desberdinetako kooperazio eta lankidetzarako proiektu bat mahaigaineratuz. Honi, Lankidetzaren Kontinentalerako Proposamena deitu diote, eta hurrengo paragrafoetan azaltzen saiatuko naiz. Proposamen hau *Europe after Brexit: A proposal for a continental partnership* (2016) lanean aurkeztu dute.

Hirurogei urtez bazirudien europar integrazioa atzerabuelarik ez zuen prozesua zela, baina 2016ko ekainaren ostean, irudi hori aldatu egin da; izan ere, Europaren bidea eta patua aukerarako gaia dela argi geratu da. Brexitak Erresuma Batuarentzako aldaketa konstituzional sakona eragin du, eta etendura garrantzitsua Europar Batasunarentzat; arrazoi hauengatik, Brexitarren negoziaketek epe luzerako ikuspegia izan beharko dute (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 1. orr.).

Gaur egungo mundua gero eta polarizatuagoa dago, potentzia emergente handiak hasi dira sortzen Asian, Latinoamerikan eta Afrikan, eta datorren 15 edo 20 urteetan, munduko botere ekonomiko eta geopolitikoaren balantza hauen alde asko aldatuko da ia segurtasun osoz; herrialde hauek populazio oso handikoak dira eta ekonomia masiboak dituzte, eta munduko herrialde boteretsuenen *topean* egongo dira zalantza gutxirekin. Etorkizun gertu honetan, gaur egungo Europar Batasuneko 4 potentzia handienek, Alemaniak, Frantziak eta Britainia Handiak, ia ezinezkoa izango dute *top* horretan leku bat izan, tamainan lehiatzeko ezinezkoa izango baitzaie (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 2. orr.).

Autore hauen arabera, Eurasiako segurtasun mehatxuek, askatasunaren eta ongizatearen inguruko erronkek, eta gaur egungo kontestu global aldakorrean, Brexitak ez luke Europa ahuldu behar; are gehiago, haien hitzetan, bizilagun geografikoak izanik interdependentzia saihestezina da, eta Erresuma Batuak Europar Batasuna utz dezake, baina ezin du Europa utzi (ibid.).

Gainera, 1970. urtetik hona, Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren arteko harremanak hainbeste korapilatu dira, hain loturik eta gurutzaturik daude, non etorkizunerako aukeren artean bide guztiz independenteak hartzea edozein kontestutan ez litzatekela posible. Horrenbestez, Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren arteko kooperazioak oso garrantzitsuak eta sakonak izaten jarraituko du. Bestalde, ekonomia eta politika banatuta ez daudela onartzeko beharra egongo dela ere adierazten dute (ibid.).

Berebiziko garrantzizkoa da beraz, bai Bruselatik eta bai Londresetik, ateratzeko negoziaketetan epe laburreko helburuez gain, epe luzerako ikuspegi bat eduki behar dutela, bai eta bien arteko interdependentziak kontutan hartu ere (ibid.).

Proposamen honen kontestua zera izango litzateke, normalean aipatzen diren modeloak jarraitzeko ezinezkoak direla, hau da, norvegiar eredu, suitzar eredu eta merkataritza libreko eredu. Izan ere, lehen bi ereduetan Erresuma Batuaren papera lege-hartzaile ¹⁶ hutsa izango bailitzake, eta kontutan hartuz herrialde honen tamaina eta garrantzia, ez litzateke egokia izango. Gainera, *cherry-picking* jarrera kritikagarriarekin jarraitzea esan nahiko luke. Bestalde, hirugarren ereduak ez lituzke garrantzizkoak diren eremu guztiak barnean hartuko (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 3. Orr).

Hauen proposamena zera da: Europar Batasuna baino azalekoagoa den erlazioa, baina merkataritza askeko akordio bat baino nabarmen sakonagoa den akordio batetara iristea. Dena den, proposamen honen oinarriak ez dira Erresuma Batuaren egoerara mugatzen, eta Europar Batasunaren beste herrialde bizilagunekiko erlazioak antolatzeko eredu izan daiteke. Modu honetan, europarrak diren baina Europar Batasunean ez dauden herrialde batzuekiko erlazio modu berri bat sor zitekeen, Erresuma Batua, Turkia, Ukraina, Suitza... Horrela, autoreen arabera bi zirkuluen Europa ¹⁷baten sorrera emango litzateke, Europar Batasuna eta Euroa erdigune eta nukleotzat funtzionatuz, eta honen inguruan lankidego intergubernamentalean antolatutako zirkulo bat sortuz. Hauen arabera, eskema tradizional eta estandarretatik aldendu beharko lirateke Brexit negoziaketak (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 3. Eta 4. orr.).

Europar Batasuna proiektu politikoa da; ez da arlo zehatzetan elkarlanean aritzen diren estatuen multzoa, baizik eta instituzio supranazionalak sortu dituen batasuna, zeinak askotan,

¹⁶ Testu orginalean *rule-taker* terminoa erabiltzen dute.

¹⁷ *Europe of two circles*, testu orginalean.

estatu kideek baino indar gehiago duten; esate baterako, jurisdikzio europarra lege nazionalen gainetik dago, besteak beste (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 3. Orr).

Hau izan da, hain zuzen ere, Britainiarrek gehien kritikatu duten aspektua, baina, europar merkatu bakarraren elementu oinarrikoetako bat ere kritikatuenetakoa izan da Erresuma Batutik, eta Brexit prozesuan protagonismo handia izan du: langileen mugimendu askea; izan ere, 2014an, Erresuma Batuan bizi ziren baina honetan jaio ez ziren 5.3 milioi pertsonetatik, 2.9 milioi Europar Batasuneko hiritarrak ziren. Horrela, haien hitzetan, proposamen honetan bi gai hauek kontutan hartu egiten dituzte, eta langileen mugikortasun mugatua duen kolaborazio intergubernamentalak proposatzen dute. Proposamen honen helburua interes amankomuneko arloetan lankidetzak gerturako edo integratzaileko egiturak sortzea da (ibid.).

Baina, posible al da integrazio ekonomiko sakona lortzea langileen mobilitatea murriztu egiten bada? Honi erantzuteko, merkatuak integratzeko bi modu daudela agudiatzen dute:

1. **Funtzionala:** honetan, tarifen existentzia eza, estandar minimoak bermatzeko arauak, arau horien betetzea bermatzeko jurisdikzio supranazionala sortzea, kompetentzia politika bakarra eta estatu kontrola, eta kontribuzio ekonomikoa ondasun publiko banatuen arloan izango lirateke oinarriak.
2. **Konstituzio ekonomiko-politiko:** Europar Batasunak dituen lau askatasunei egiten dio erreferentzia, ondasun, zerbitzu, kapital eta pertsonetan. Honetan, langileen mugikortasun osoa ezinbestekoa da. Honi, hain zuzen, britainiarrek ezetz esan diote.

Autoreak lehen ikuspegiaren aldekoak dira. Merkatuaren integrazio sakonaren alde daude, baina honetan, lege eta estandar batzuk egon behar dira enpresei eta hauen botereari mugak jartzeko; hau da, estatuaren laguntzak eta kontrola, kompetentziarako politikak, arau komunak, eta eskubide sozialak, partehartzea, eroslearen babesa eta osasun eta segurtasun minimoak behar-beharrezkotzat dituzte. Gainera, langileen mugikortasun partziala beharrezkotzat ikusten dute (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 5. orr.).

Horrenbestez, hauen proposamena integrazio ekonomiko sakona lortzea da, ondasun, zerbitzu eta kapital mugikortasun osoan, eta langile mugikortasun mugatuan oinarritutako lankidetzak marko bat sortzea da, Lankidetzak Kontinentalak deitua, *Continental Partnership* ingelesez (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 6. orr.).

CP delakoak, lehen aipatutako moduan, Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko harremanak aldatuko lituzke. Honek eremu hauek barnebiduko lituzke:

- Politika amankomun batzuetan parte hartzea, Merkatu Bakarrean parte hartzearekin koherenteak direnak.
- Gobernuarteko erabaki hartze eta betearaztea, CP sistema berriaren barruan.
- Europar Batasunaren aurrekontuei aportazio ekonomikoak egitea.
- Lankidetzak estua kanpo politikan, segurtasunean eta, ahal bada, defentsa arloetan.

Kontutan hartu beharko litzateke Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeen iritzia arlo amankomunetan, dena den, alde batetik, kanpo politikan, segurtasun eta defentsan, baina baita merkatu bakarraren arloan, zeinean CP-ko herrialdeek eskubide eta betebeharrak guztiekien parte hartuko lukete (langileen mugimendu askea izan ezik) (ibid.).

Legeintza prozesuan, CP-eko herrialdeak eta EB-ko instituzioak kontseilu batean batuko liriateke. Dena den, CP-k ezingo luke Europar Batasuneko legedia aprobatu, baina honen zirriborroen irakurketetan parte hartuko lukete, eta zuzenketak proposatzeko ahalmena ere izango lukete; hau da, Europar Batasuneko legedia merkatu bakarrean betiko moduan egingo litzateke, baina CP-k parte hartzen duen alorretan, legedia aprobatu baino lehen proposamenak egiteko aukera izango du; hala ere, Europar Batasunak hauen proposamenak kontutan hartzea erabaki politikoa izango litzateke, legeak ez lukeelako horretara behartzen. Edozeinean, biak ados ez egotekotan, EB-k azken hitz izango luke (Pisani-Ferry, Röttgen, Sapir, Tucker, & Wolff, 2016, 7. orr.).

Gainera, aportazio ekonomiko jakin bat egitea ezinbestekoa litzateke, batez ere, eta autoreen hitzetan, Europar Batasuneko alde ez hain garatuak laguntzeko, baina baita nekazaritza politikentzako. Herrialde guztiek egin beharko lukete, Erresuma Batuak barne (ibid.).

Laburbilduz, area hauetan jardungo litzateke Lankidetzaren Kontinentala:

1. Merkatu bakarraren area guztiak, langileen mugimendu askean izan ezik.
2. Kanpo ekonomiarako politikak elkarbanatuak izango liriateke, eta CP osoak mundu osoan merkataritzan, erregulaketa finantzarioan, eta klima eta energia politiketan eragina izateko helburua izan beharko luke
3. Energia eta klima politikak ere, honen arloen barruan egongo liriateke.
4. Azkenik CP-k, kanpo politikan, segurtasunean eta defentsan rol aktiboa izan beharko luke. Hauetan lankidetzan aritzeko beharra dagoela azpimarratu egiten dute autoreek.¹⁸

Nire ustetan, proposamen interesgarria da; izan ere, etorkizunerako bide desberdina eta berria ematen du, Europar lankidetzaren modu desberdinak egon daitezkeela erakutsiz, baina Europar Batasunean egoteko beharrik gabe; izan ere, baliteke estatu batzuei zenbait eremutan parte hartzeko interesik, beharrik edo aukerarik ez edukitzea, baina beste arlo batzuetan lankidetzan aritzeko nahia izatea, edo beharra ikustea. Egokitzen ikusten dut alde aurretiko moldeetatik urruntzeko deia, askotan, horiek itsutu egiten baikaituzte.

Bestalde, nahiz eta honi lerro gehiegi ez eskaini, Europar Batasunak, eta *Continental Partnership* osoak alde sozial bat edukitzeko beharra adierazten dute, zeina, nire iritziz, gaur egun behar-beharrezkoa den, Europa izan daitekeelako eta izan beharko litzatekelako ongizate estatuaren kabia.

Honela, kontinente ia osoa batzea lor zitekeen, munduko balantzan nolabait pisua mantentzea bermatuz. Hala ere, puntu negatiboak ere ikusten dizkiot; izan ere, nahiz eta neurri sozialak babestu, pertsonen askatasuna mugatzea kontraesankorra dela deritzot. Egia da hau izan dela Britainiarrek gehien kritikatu duten puntua, baina, kapitalak, finantzak, enpresak... mugitzeko aske diren heinean, zentzu batean eliteen mesedetara dagoela ikusten dut. Bestalde, proposatzen dena, neurri batean, pragmatismo britainiarrarekin bat doala ikusten dut; hau da, interesatzen zaiena hartuz, baina interesatzen ez zaiena ukatuz, gainerakoek dena pack berean hartu behar duten bitartean. Azkenik, aurrera eramateko zailtzen ikusten dut; izan ere, gaur egunean badakigu Brexit negoziaketak gogorrak izango direla bi parteetatik, eta beraz, ez dirudi bata besteari erreztasunik emango dionik.

¹⁸ Gehiago irakurtzeko, testuaren 9. orrialdera jo.

5. Europar Batasunaren etorkizuna: Batzordearen Liburu Zuria– Europaren oraina eta etorkizuna.

2017ko martxoan, Europar Komisioak Europako Etorkizunaren inguruko Liburu Zuria plazaratu zuen. Honek, garrantzia berezia izan du bizi dugun garaia dela eta; izan ere, alde batetik 2017an Erromako Itunaren 60. urteurrena izan da, zeinak Europar Batasunaren existentzia ahalbidetu izan zuen, baina batez ere, gaur ezagutzen dugun Europa krisian dagoelako, batez ere lan honen muina den Brexit-aren ostean. Europa inoiz baino ahulago dago, eta askok espero zuten Europar Batasunak bere etorkizunaren inguruko iritzi propioa azalaraztea.

Liburuaren lehen orrialdeetatik, hitzaurre eta sarreran, Europar Batasunak egindako lorpenei egiten zaizkie erreferentziak, batez ere, historian gerraz josia egon den kontinente honetan, Batasunak lortu duen bake garai luzeari, garapen ekonomikoari, demokraziari eta baloreei. Baina, gaur egungo krisi egoeraren inguruan ere hitz egiten du, europar askok urrun ikusten dutela, edo haien eguneroko bizitzan gehiegi sartzen dela uste dutela onartuz, beste gaur eguneko gaie batzuen artean. Itxaropen mezuak ere bidaltzen ditu, egoera honek etorkizunerako muga bat esan nahi ez duela esanez, Europa krisi egoeretan eraiki delako. Liburuak, gainera, hurrengo hamarkadak edukiko dituen aldaketa faktoreak analizatzea eta Europak hemendik 2025erako eduki ditzakeen eszenatoki desberdinak aurkeztea du helburu. Horrenbestez, argi dago Liburu Zuri honen helburua gaurko egoerari erantzun bat ematea dela (Europako Batzordea, 2017, 3, 6 eta 7. orrialdeak).

Europaren etorkizuna baldintzatuko duten faktoreak, lau atal nagusitan banatzen ditu, eta lehenengoan, gaur egungo egoera mundial aldakorrari eskaintzen dio. Lau puntu hauek nabarmendu egiten dituzte:

- **Europak proportzio geroz eta baxuagoa du munduko populazioan:**
1900. Urtean Europako populazioa munduko populazioaren %25a izatetik, gaur egun %6a izatera igaro da, eta kalkuluen arabera, 2060an %4a bakarrik izango da (Europako Batzordea, 2017, 8. Orr.).
- **Munduko BPGan Europaren parte txikiagotuz doa:**
Gaur egun, Munduko BPG-aren %22a Europatik dator; hala ere, 2020rako Europaren aportazioa Munduko BPG-an %20a baino gutxiago izango da, gorabidean dauden ekonomiak igotzen joango delarik. Beraz, Liburuaren arabera, honi erantzuteko nazioarteko mailan Europak ahots bakar batez hitz egin behar du (ibid.).
- **Euroa moneta mundial oso garrantzitsua izan arren, beste aktore batzuek geroz eta garrantzia handiago dute:**
Yuan Txinatarraren gorakadaren kasua batez ere (ibid.).
- **Hemendik 2045era, defentsan gehien inbertitzen duten herrialdeek haien inbertsioa bikoiztuko dutela kalkulatu da:**
Munduko kontestua geroz eta tentsio handikoagoa da, eta, EBa OTAN-ek babesten badu ere, liburuaren arabera Europak ez du *inuzentea* izan behar, eta bere segurtasunaren arduradun bihurtu behar da, *soft power*-a nahiko ez delako indarra legearen gainetik egon daitekena (Europako Batzordea, 2017, 9. Orr.).

Ondorengo atalean ekonomia eta gizarteari buruz hitz egiten da. 2008 krisiak eragin oso negatiboak izan zituela adierazten du, eta, nahiz eta datu makroekonomikoek hobekuntza bat adierazten duten, onartzen dute errekupeketa honen eragina gizartean eta erregioen artean ez dela modu berdintsuan banatu. Gainera, arazo hau gazteentzako bereziki latza dela diote, eta Europak ezin duela eduki duen belaunaldirik prestatuena galtzen utzi (Europako Batzordea, 2017, 9. orr). Gizarteari buruzko atal honetan, datu hauek nabarmendu dituzte:

- **Langabezia tasa murriztu egin da baina oraindik altua da EB-28n:**
Haien hitzetan, honek argi uzten du batasun ekonomiko eta monetarioa guztiz burutu behar direla, Europar Batasuneko ekonomia inklusiboa, konpetitiboa, moldagarria eta etorkizunerako prestatua izan dadin (ibid.).
- **2030erako Europako populazioa munduko zaharrena izango da:**
Horretaz gain, bizi itxaropena inoiz baino altuagoa da; hala ere, Europak munduko segurtasun sozialik garatuena du, eta Europako komunitate zientifikoa osasungintzan punta-puntakoa da. Bestalde, gizartean aldaketa asko ematen ari dira, gaur egun, batz bestea beste pertsona batek bere bizitza osoan hamar enplegu desberdin izango dituela diote, eta lan munduan inoiz baino emakume gehiago daudela ere goraiatzen dute (Europako Batzordea, 2017, 10. orr.).
- **Europako gizartearen berdintasun maila munduko altuenetakoa da:**
Lehen aipatutako moduan, Europar Batasuneko gizarte segurtasun sistemak munduko garatuenak dira, baina, berriztu behar direla esaten dute, lan eta demografia errealitate berrietara adaptatuz; izan ere, gizartean eta munduan jasaten ari den digitalizazio prozesuak errealitate guztiak aldatzen ari dituelako: langileena, ondasun eta zerbitzuena...

Garapen prozesu honek, gaur egungo lanpostu asko eta asko desagerraraziko ditu, eta existitzen ez diren lanpostu eta lan berriak sortuko dira. Honek eragin ditzakeen efektu negatiboak aurre egiteko, eta aukera berriak ahal den eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza sistema berriak beharko dira, bai eta eskubide sozialen hedapena.

Azkenik, Europaren ingurumenarekiko konpromezua adierazten dute, energia berriztagarrien beharra azalduz (ibid.).

Hurrengo puntua, mehatxuen, segurtasunaren eta mugen ingurukoa da. Honetan aipatzen den lehen gauza da Europak askatasuna eta estabilitatea eskaintzen dituen lurraldea dela, zeina munduan oso urria den. Hala ere, azken aldiko atentatu terroristek gizartean konmozioa sortu dute, batez ere, mehatxu hauen gehiengo bat mugen barnean dagoelako. Honi jarraiki, mugen inguruan ari dira, migrazioa geroz eta fenomeno nagusiagoa delako, bai Europatik kanpo datozen pertsonengatik, baina baita Europar mugen barnean mugitzen diren pertsonak direla eta; izan ere, egunero ia 2 milioi europar mugitzen dira mugen barnean, eta hala ere, lehen aldiz mugak ebatzi zirenetik, gaur egun kontrolak ezarri dira leku askotan (Europako Batzordea, 2017, 11. Orr).

Jorrazten duten azken puntua, etorkizuneko balizko eszenatokiekin hasi baino lehen, legimititate eta konfiantzaren zalantzan jartzea dira, hain zuzen ere, nire ustetan, Europar Batasunaren etorkizunerako garrantzi gehien duen puntua. Honen zergatia, batez ere, lehen azalduetako gaur egungo egoera dela adierazten dute, eta baita ere Europar Batasunaren konplexutasuna direla eta; hauek, botere publikoekiko mesfidantza eragin dute, bai EBn eta bai hau osatzen duten estatuetan. Europar Batasuna ulertzeko zaila da, eta, haien hitzetan,

hiritarrak askotan ez dira kontziente gertu dauden gauza asko (nekazal guneak, unibertsitateak, garraio bideak ...) Europar Batasunak finantzatzen dituela (Europako Batzordea, 2017, 12. Orr).

Hala ere, nire ustetan mesfidantza honen azalpenerako pisua eman beharko liokete gaur egun Europar Batasunak duen defizit demokratikoari, jendeak Europa urrun ikusten badu, bere herriarekiko hurbiltasun faltagatik delako hain zuzen ere, populazioaren parte handi batek Europari buruz parlamenturako hauteskundeak direnean bakarrik entzuten baitu. Oso urrun geratzen da, eta askotan, bakarrik formakuntza altua duten pertsonak ulertzen dute benetan zer den. Dena den, populazioaren ehuneko oso altu batek oraindik ere Batasuna defendatzen duela erakusten dute, nolabait egoera hain txarra ez dela erakusteko asmoz.

2025erako egon daitezkeen 5 eszenatoki desberdin

Europako Batzordeak, etorkizunerako bost eszenatoki desberdin irudikatu ditu bere Liburu Zurian, gaur egungo gertaeren, erabakien, eta, hartzen diren bideen arabera. 2025ean Europaren 5 balizko egoera planteatzen ditu, zeinak azaleko batasun batetara bueltatzetik, batasun osoago bat izatera igarotzen diren, baina argi uzten dute ez direla ildo politikoak, eta planteatutako eszenatokiak teilaka daitezkeela, errealitatean batak ez lukeela bestea zertan baztertu behar (Europako Batzordea, 2017, 15. orr). Hauek dira 2025erako balizko bost eszenatokiak:

1. Berdin Jarraitu

Europar Batasunak gaur egungo norabidea jarraituko luke, gaur egun duen erreformen programa aplikatzean eta hobekuntzan arreta jarritz. Prioritateak aldiari aldiari berriztuko lirateke, arazoak, sortzen diren bitartean ebatziko lirateke, eta hau kontutan hartuta, legedi berria sortuko litzateke, behar denean zaharkiturik dagoen legedia kentzeko. Europako estatuek ekintza orokorrerako programa bat aplikatuko lukete; baina erabakiak hartzeko abiadura ikuspuntu desberdinak gainditzearen arabera izango litzateke (Europako Batzordea, 2017, 16. orr).

Horrela, bide honetatik jarraituz gero, 2025ean Europar Batasuna enpleguan, hazkundean eta inbertsioan jarriko luke arreta, merkatu bakarra eta azpiegitura energetikoak, garraio bideak eta digitalak indartuz. Moneta bakarrean aurrerapausoak egongo lirateke eta finantzak gainbegiratzerako neurriak sortuko litzateke (ibid.).

Batzordeak, erreforma bat egingo luke laguntza estatalen legediaren inguruan, eta hauen %90a autoritate nazional, erregional eta lokalen esku egongo litzateke (ibid.).

Terrorismoaren aurkako borroka indartuko litzateke autoritate nazionalen onespenerekin, bai eta defentsaren arloko inbestigazioa, industria eta kontratazioan kooperazioa ere. Gainera, estatuek arlo militar batzuk elkarbanatzea erabakiko lukete (ibid.).

Azkenik, kanpo-politikan, aho bakarrez hitz egiterako orduan aurrerapausoak emango lirateke, baina kanpo mugen erantzukizuna herrialde bakoitzak edukiko luke, hala ere, honetan kooperazioak aurrera egin beharko luke, erronka berriei aurre egiteko, eta honetan Kostalde eta Mugen Europako Guardiak paper garrantzitsuagoa edukiko luke (ibid.).

Bide honetan, EBa eremu batzuetan agenda mundialean eragina izan dezakeen: aldaketa klimatikoan, estabilitate finantzarioa eta garapen jasangarrian.

Efektuak politketan:

Merkatu bakarrean eta merkataritzan	Batasun ekonomiko eta monetarioa	Schengen, migrazioa eta segurtasuna	Kanpo politika eta defentsa	EBren aurrekontua	Emaitzak lortzeko ahalmena
Merkatu bakarra indartuko litzateke, batez ere arlo energetiko eta digitalean. EBa merkataritza akordio progresiboak bilatuko lituzke.	Eurogunearen funtzionamendua apurka-apurka hobetuko litzateke.	Kanpo mugen gestioaren kooperazioa mailaz-maila indartuko litzateke, eta aurrerapenak egongo lirateke asilorako sistema amankomun batetara.	Kanpo gaien inguruan aho bakarrez hitz egiteko aurrerapenak daude, eta kooperazio handiagoa defentsa arloan.	Partzialki berriztuko litzateke, EB-27 mailan adostutako erreformen programa isladatzeko	Erabaki prozesua ulertzeko zaila izaten jarraituko luke; emaitzak lortzeko ahalmena ez doa beti aurreikuspenekin bat

Iturria: Europar Batzordea, 2017: 17.

2. Soilik Merkatu Bakarra.

EB-27a ez balitz ados jarriko aspektu politiko askotan, kasu honetara helduko ginateke, non estatuak merkatu bakarraren aspektu klabeetan zentratuko liratekeen, baina migrazioa, segurtasuna edo defentsa bezalako arloetan kolaboratzeko asmorik egon gabe; ondorioz, Europar Batasunak bere esfortzuak arlo politikoetan ez lituzke jarriko. Interes berriko gaien kooperazioa modu bilateralean gestionatuko litzateke, EBak legediaren zati handi bat murriztuz (Europako Batzordea, 2017, 18.orr).

Horrela jarraituz gero, 2025ean, beraz, merkatu bakarra Europar Batasunaren existentziarako arrazoi nagusia izango litzateke, legedi komuna askoz ere murriztagoa izango litzateke, eta zaila izango litzateke langileen mobilitatean akordio berriak sinatzea; izan ere, langile eta zerbitzuen zirkulazio askea ez litzateke guztiz bermaturik egongo (ibid.).

Euroak hartu-eman ekonomikoak erraztuko lituzke, baina kooperazio faltak ahultasun puntu nabariak sortuko lituzke; beraz, moneta bakarraren integritatea eta krisi berriei aurre egiteko bere ahalmena mugatua izango litzateke (ibid.).

Nazioarteko merkataritzaren ikuspuntuaren inguruko barne desadostasunek eragin negatiboa edukiko lukete nazioarteko akordioak lortzerako orduan. Gainera, migrazioa eta kanpo politikaren aspektu asko kooperazio bilateralaren markoan egingo lirateke, eta garapenerako laguntza maila nazionalean gestionatuko litzateke. Kontrol sistematiko handiagoa emango litzateke muga nazionaletan, bestalde. Gainera, Europar Batasuna bere osotasunean ez zen foro internazional askotan egongo, postulatu amankomun bat lortzeko zailtasunak direla eta (ibid.).

Merkatu bakarrea eta merkataritza	Batasun ekonomiko eta monetarioa	Schengen, migrazioa eta segurtasuna	Kanpo politika eta defentsa	EBren aurrekontua	Emaitzak lortzeko ahalmena
Kapital eta ondasunen merkatu bakarra indartuko litzateke, baina pertsona eta zerbitzuen zirkulazio askea bermatuta geratu barik.	Kooperazio mugatua eurogunean.	Asilo eta migrazio politika amankomunik ez dago; segurtasun arloan koordinazio sakonagoa egotea bilateralki egin beharko zen; mugetako kontrolak sistematisatukoagoak.	Kanpo politikaren puntu batzuk bilateralki eramango ziren aurrera; defentsaren inguruko kooperazioa gaur egungo moduan jarraituko luke.	Merkatu bakarrerako esentzialak diren funtzioetarako bideratuko zen.	Prozedimentu erabakitzaila errazagoa izango litzateke ziurrenik, baina modu kolektiboan eragiteko ahalmena mugatua izango zen; interes amankomuneko gaiak modu bilateralean ebatzi beharko lirateke.

Iturria: Europar Batzordea, 2017: 19.

3. Gehiago egin nahi dutenek, gehiago egiten dute.

EB-27a gaur egun bezala funtzionatzen jarraituko luke, baina estatu kide batzuek amankomunean gehiago egin nahi dute, eta “borondateen koalizio” bat edo batzuk sortuko lirateke arlo zehatz batzuetan lankidetzan aritzeko. Beraz, estatu kideen taldeak sortuko lirateke. Hau gaur egungo markotik abiatu daiteke, eta beraz, gehiago kooperatu nahi ez duten estatuak berdin jarraituko aukera edukiko lukete, baina etorkizunean hauetara atxikitzeko aukerarekin (Europako Batzordea, 2017, 20. Orr.).

2025eko eszenatokian, Estatu kide batzuen talde batek defentsa arloan gehiago elkarrekin lan egitea erabakitzen du, existitzen diren aukerak erabiliz; oinarri industriala, ikerketa, kontratazio publiko amankomuna, ahalmen integratuagoak eta ahalmen militar indartua beharko zen kanpoan misioak aurrera eramateko. Hau da, integrazio eta lankidetzaren sakona (ibid.).

Beste herrialdeen multzo bat justizia eta segurtasun arloan kooperatzen hasiko litzateke, indar polizialen eta inteligentzia zerbitzuen elkarlana bultzatuz. Delinkuentzia eta terrorismoren inguruko ekintzen informazioa partekatuko lukete, eta fiskalia amankomun bati esker, fraudearen, diru zuritzearen eta droga eta armen trafikoaren aurka kolektiboki arituko lirateke, eta justizia zibilaren inguruko espazio amankomun bat sortzeko aukera ere edukiko lukete (ibid.).

Beste talde batek gai fiskal eta sozialetan elkarlanean aritzeko erabakiko luke. Arauen eta tipo fiskalen armonizazio maila altuagok ebazio fiskalaren aurka egingo luke. Gainera, adostutako arau sozialek lan baldintzak hobetuko lituzke eta enpresen seguratsuna handitu. Kooperazioa industriala indartuko zen, teknologia, produktu eta zerbitzu batzuetan (ibid.).

27ak merkatu bakarra eta 4 askatasunak indartzen jarraituko lukete.

Merkatu bakarrean eta merkataritzan	Batasun ekonomiko eta monetarioa	Schengen, migrazioa eta segurtasuna	Kanpo politika eta defentsa	EBren aurrekontua	Emaitzak lortzeko ahalmena
Lehen eszenatokian bezala, merkatu bakarra indartuko litzateke eta Europak akordio komertzial progresiboak bilatuko lituzke.	Honetan ere bai, lehen eszenatokian bezala baina herrialdeen talde desberdinek haien kooperazioa indartuko lukete eta justizia bezalako eremuetan.	Lehen eszenatokian bezala, baina arlo honetan gehiago kooperatzea erabaki duten herrialde batzuentat	Lehen eszenatokian bezala, baina defentsa arloan haratago joatea erabaki duten herrialdeentzat izan ezik.	Lehen eszenatokian bezala, aurrekontu arlo desberdinetan gehiago egin nahi duten herrialdeentzako izan ezik.	Erabaki hartze prozesua konplexuagoa bihurtuko litzateke, eta arlo batzuetan gehiago lortuko zen, eta beste batzuetan gutxiago, kooperazioaren arabera.

Iturria: Europar Batzordea, 2017: 21.

4. Gutxiago egin baina efizienteago.

Egoera honetan herrialde guztiek uste dute arlo zehatz batzuek lehentasuna dutela, eta elkarrekin aurrera eraman behar dituztela, beraz, EB-27a, bere arreta eta errekurtsio mugatuak hauetan jartzea erabakitzen du. Hori dela eta, erabakitako arlo hauei instrumentu, eta errekurtsio indartsuagoak emango zitzaizkien. Kontestu honetan, promesek eta ekintzek antza handiago edukiko lukete (Europako Batzordea, 2017, 22. Orr.).

Horrela, 2025ean, EB-27ak lana berrikuntzan, merkataritzan, segurtasunean, migrazioan, mugen gestioan eta defentsan zentratuko luke. Merkatu bakarraren arlo klabe batzuetan sakontzeko, arau eta instrumentu berriak garatuko lituzke. Ikerkuntza eta garapenean ere inbertituko luke, baita Co2 emisioak murrizten ere (ibid.).

Ohiko adibide moduan hurrengo arloak aipatzen dituzte: teknologia altuko kooperazioaren arloa, energiako plataforma erregionalen sorrera eta terrorismoaren arloan autoritate polizial eta judzialen kooperazioa. Azken hau, Terrorismoaren Aurkako Agentzia Europarraren eskutik egingo litzateke (ibid.).

Kontestu honetan ere, Muga eta Kostaldean Guardia Europarrak mugen gestioaren arduraduna izango litzateke ehuneko ehunetan, eta asilo eskaera guztiak Asilorako Agentzia Europarrak tramitatuko lituzke (ibid.).

Aldi berean, EBak lan egiteari utziko lioke, edo gutxiago interbenituko luke balio erantsi gutxiko arloetan edo hitza betetzea ezinezkoa edo zaila dituen arloetan, esate baterako garapen erregionalean, osasungintzan, edo merkatu bakarrarekin zerikusi zuzena ez duten enplegu politika edo politika sozialen arloak (ibid.).

Laguntza estatalen kontrolaren arloa autoritate nazionalen esku egongo litzateke, eta kontsumitzaileen babesaren, ingurumenaren, osasunaren eta lan segurtasunaren inguruko Europar arauak, gaur egungo harmonizazio zehatzetik, minimora igaroko lirateke. Estatuak flexibilitate gehiago edukiko lukete arlo batzuetan, hala ere, Europak erregulatzen dituen ambitoetan, ejekuziorako konpetentzien sendotzeak betetze osoa bermatuko luke. Gainerako eremuetan, eurogunea finkatzeko eta moneta bakarraren estabilitatea garantizatzeko neurriak aplikatuko lirateke (ibid.).

Merkatu bakarrean eta merkataritza	Batasun ekonomiko eta monetarioa	Schengen, migrazioa eta segurtasuna	Kanpo politika eta defentsa	EBren aurrekontua	Emaitzak lortzeko ahalmena
Arau amankomunak minimoak izatera igaroko lirateke, baina EB mailan erregulatuta dauden eremuetan, exekuzioa indartzen da. Merkataritza EB mailan landuko litzateke soilik.	Eurogunea finkatzeko eta estabilitatea bermatzeko neurriak hartuko lirateke; EB-27ak gutxiago egingo luke enplegu politika eta politika sozialen arloan.	Mugen gestioan, asilo politikan, eta terrorismoaren aurkako borrokan kooperazio sistematikoa.	EBak aho bakarrez hitz egiten du kanpo politikaren inguruko gaietan, eta Defentsarako Europar Batasun bat sortuko litzateke.	Berriz diseinatuko litzateke EB-27aren lehentasun berrietara egokitze.	Hasiera batean, zaila izango litzateke zein arlo priorizatu, eta zein uzteko erabakia, baina behin lortuta, erabaki prozesua ulertzeko errezagoa bihur zitekeen. EBak azkarrago eragingo luke paper garrantzitsua duen arloetan.

Iturria: Europar Batzordea, 2017: 23.

5. Elkarrekin askoz gehiago egin.

Europar Batasuna osatzen duten 27 herrialdeek gaur egungo Europar Batasunaren eredia nahikoa ez dela pentsatzekotan, eta herrialde bakoitzak, bere kabuz, errekurtsio nahikoak ez dituela uste izango balute, Estatu Kideek batasunarekin haratago joatea erabaki lezakete eta konpetentzia, errekurtsio eta erabaki hartze prozesu gehiago amankomunean jartzea erabakiko balute, egoera honetara helduko ginatke (Europako K, 2017, 24. orr).

Ondorio moduan, Estatu Kideen arteko kooperazioa inoiz baino urrunago helduko litzateke, eremu guztietan, Eurogunea finkatuz; bestalde, maila europarrean hartutako erabakiak azkarragoak izango lirateke, eta haien exekuzioa ere bai (ibid.).

2025ean, beraz, Europar Batasuna, nazioarteko mailan erakunde bakar baten moduan ekingo eta hitz egingo luke, eta foro internazionaletan ordezkari bakarra izango luke. Gainera, Europar Parlamentuak nazioarteko merkataritza akordioetan azken hitza edukiko luke, eta Europar Batasunak, orokorrean, defentsa eta segurtasunerako prioritatea izango zuen,

Defentsarako Europar Batasuna sortuz. Bestalde, EBa aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan burua izaten jarraituko luke eta giza eta garapenerako laguntza emateko papera indartuko luke (ibid.).

Kontestu honetan, migrazio arloan duen enfokea indartuko litzateke, eta europatik gertu dauden herrialdeetan inbertsio gehiago egiteko aukera, aukera ekonomikoak sortzeko, migrazio legala kudeatzeko eta irregulartasunei aurre egiteko aukerak edukiko lituzke (ibid.).

Bestalde, energiaren merkatu bakarra, digitala eta zerbitzuena atentzio gehiago jasoko luke, eta garapen eta berrikuntza arloan emandako kooperazioak *Silicon Valley* europarrak sortzeko aukera egongo litzateke. Aldi berean, kapitalen merkatuen integrazio osoak europar mailako azpiegitura handiko proiektuak finantzatzeko aukera egongo litzateke, baita enpresa txiki eta ertainak finantzatzeko aukera ere (ibid.).

Eurogunean batez ere, arlo fiskal, sozial eta tributarioan koordinazio altuagoa egongo litzateke. Gainera, garapen ekonomikoa bultzatzeko, eta maila nazional, erregional eta sektorialean krisi egoerei aurre egiteko Europar laguntza gehiago egongo zen (ibid.).

Merkatu bakarrean eta merkataritzan	Batasun ekonomiko eta monetarioa	Schengen, migrazioa eta segurtasuna	Kanpo politika eta defentsa	EBren aurrekontua	Emaitzak lortzeko ahalmena
Merkatu bakarraren sendotzea arauen armonizazioari eta exekuzio zorrotzago bati esker. Merkataritza harremanak EB mailan gestionatuko lirateke soilik.	Batasun ekonomiko, finantzario eta presupuestario bat lortuko litzateke, 2015eko ekaineko bost Presidenteen informean aurreikusten zen moduan	Aurreko puntuan bezala, mugen kudeaketa, asiloa eta terrorismoaren aurkako kooperazioa sistematikoa izango litzateke.	Aurreko puntuan bezala, EBak aho bakarrez hitz egingo luke kanpo politikaren gaietan, eta Defentsarako Europar Batasun bat sortuko litzateke.	Berriztuko litzateke, eta handiagotuko litzateke errekurtsio propioei esker; aurrekontuen estabilizaziorako funtzio bat sortuko litzateke Eurogunerako.	Erabaki prozesua azkarragoa eta exekuzioa firmeagoa orokorrean; erresponsabilitaterako kuestio batzuk planteatzen dira EBak botere gehiegi lortu duela argudiatzen duten Estatu kideengandik.

Iturria: Europar Batzordea, 2017: 25.

6. Irteeraren negoziaketak. Lehen pausuak.

Gaurko egunerako, Erresuma Batuaren irteeraren inguruko negoziaketak jada abiatu dira. Nahiz eta orain arte dokumentazio ofizial gehiegirik ez egon, dauzkagun agiriek hartuko diren bideen irudi bat eman diezazkigukete, eta beraz, aurretik planteatutako eszenatoki batzuk alde batera utz genitzake. Lanean jorratzen ari garen gaurkotasun hain handiko gai honen arazoetariko bat hori bera da: duela hilabete batzuk planteatutako gauza asko, denbora epe laburrean errefusaturik gera daitezke; hala ere, orain daukagun informazioarekin hain posibleak ez diruditen eszenatoki horiek etorkizuneko errealitate balizkoaren irudi zabala eta handia izateko lagungarri izan dakizkiguke, eta, baliteke, etorkizun urrunago batean posible ere izatea.

6.1. Theresa Mayren gutuna. Europar Batasuneko Itunaren 50. artikulua aktibazioa.

2017ko martxoaren 29an, Theresa May-k, lehen ministro britainiarrak, Europar Kontseiluari, eta honekin Europar Batasun osoari, Europar Batasunaren Itunaren 50. Artikulua aktibatzen nahia bidali zion gutun baten bidez, Erresuma Batuaren irteera prozesua hasiz. Honetan, tonu oso lagungarri batez mintzatu egiten da, eta lankidetzarako deia egiten dio Europar Batasunari. Lehen paragrafoak honakoa dio:

On 23 June last year, the people of the United Kingdom voted to leave the European Union. As I have said before, that decision was no rejection of the values we share as fellow Europeans. Nor was it an attempt to do harm to the European Union or any of the remaining member states. On the contrary, the United Kingdom wants the European Union to succeed and prosper. Instead, the referendum was a vote to restore, as we see it, our national self-determination. We are leaving the European Union, but we are not leaving Europe - and we want to remain committed partners and allies to our friends across the continent.

Hasieratik argitzen du Europar Batasunetik joateko erabakiak ez duela esan nahi europar balioei uko egiten diela, edo hau Europar Batasunari min egiteko modu bat denik, baizik eta biek, bai Europar Batasunak, bai Erresuma Batuak aurrera egitea duela desira moduan. Azken lerroan, gainera, Europar Batasuna utzi dutela, baina Europar geratzen direla argi dutela adierazten du, horregatik kideak eta aliatuak izateko bere nahia erakusten du. Lehen paragrafo eta sarrera oso esanguratsua dela esango nuke, aurretiaz ikusitako Britainiar jarrera berekoiarekiko aldentzen delako.

Ondoren, bigarren orrialdearen lehen paragrafoan esaten du gutunak Bere Maiestatearen Gobernuak irteera prozesuaren inguruan duen ikuspuntua ematen duela, espero duten bien arteko asoziazio sakon eta bereziaren inguruan, bere bizilagun eta lagunik gertuen moduan.

Negoziaketek ahalik eta gorabehera gutxien sortzeko nahi dutela adierazten dute, eta aurrerago, etorkizunean Europa oparo eta indartsu bat espero dutela ikusi, bere baloreak munduan zehar proiektatzeko gai dena, mundua lidera dezakeena, eta mehatxuei aurre egin ahal diena. Gainera, eta azken honen paragrafo berean, errepikatu egiten du Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren arteko asoziazio sakon eta berezi baten guraria, baina helburu honetarako Erresuma Batuak bere papera osotasunean aurrera eramatea beharrezkoa duela.

Devloution prozesuaren inguruan ere hitz egiten du, hirugarren orrialdeko lehen paragrafoan honakoa esanez: *“When it comes to the return of powers back to the United Kingdom, we will consult fully on which powers should reside in Westminster and which should be devolved to Scotland, Wales and Northern Ireland”*. Adierazgarria da honelako aipamena egitea, batez ere *remainaren* alde egin zuten lurraldeen kasuetan; izan ere, hitz emate honek, pertsona askoren iritzia alda lezake.

Hurrengo paragrafoan, eta guri gehien interesatzen zaigunera bueltatuz, Europar Batasunarekin asoziazio sakon eta berezi bat edukitzeko asmoa jakinarazten digu hirugarren aldiz, eta horretarako, irteeraren eta etorkizuneko asoziazioaren terminoak orain hasita finkatu behar liratekeela dio. Gogora dezagun Europar Batasunaren Itunak honetarako aukera ematen duela

Gutunaren azkeneko partearekin hasteko, Lehen Ministroak negoziaketetarako zazpi printzipio mahaigaineratu egiten ditu:

1. **Errespetuz eta modu konstruktiboan erlazionatu beharko ginateke, kooperaziorako benetako espiritu batekin**¹⁹. Honen barruan, merkatu bakarraren lau askatasunak banaezinak direla ulertzen eta errespetatzen dutela adierazten dute, eta ezin direla nahierara aukeratu.
2. **Gure hiritarrek beti lehena izan behar dute.**²⁰ Bai Erresuma Batuan bizi diren europar hiritarrak, eta bai Europar Batasunean bizi diren hiritar britainiarrek, haien interesak babestuta ikusi behar dituzte, nahiz eta negoziaketak konplexuak izan.
3. **Akordio orokor bat lortzeko esfortzua egin beharko genuke**²¹. Honen barnean, laugarren aldiz aipatzen da lankidetzak sakona eta berezia nahi dutela Europar Batasunarekin, kooperazioa segurtasun eta ekonomia arloan bultzatuz. Ondorioz, etorkizuneko lankidetzak horretarako printzipioak irteeraren printzipioekin batera negoziatu beharko lirateke.
4. **Elkarlanean aritu beharko ginateke gorabeherak ekiditeko eta ahalik eta ziurtasun gehiena lortzeko**²². Erresuma Batuko, Europar Batasuneko eta mundu osoko inbertsore, enpresa eta hiritarrek planak egin ahal izatea nahi dute, horregatik, limite egoerak saihesteko, exekuzio epeak beharko dira, disposizio berrietara arazorik gabe adaptatzeko.
5. **Modu berezian, Erresuma Batuaren eta Irlandako Errepublikaren arteko erlazio bereziari arreta prestatu behar zaio, eta Ipar Irlandako bake prozesuak duen garrantziari**²³. Irlandako Errepublika Erresuma Batuarekin lur muga duen herrialde bakarra da. Muga gogor batetara bueltatzea ekidin nahi dute, Bidai Area Amankomuna mantenduz, eta ziurtatuz Erresuma Batuaren joateak ez diola Irlandako Errepublikari kalterik egiten. Gainera, Ipar Irlandako bake prozesua arriskuan ezker ez jartzeko borondatea dutela esaten da ere.

¹⁹ *We should engage with one another constructively and respectfully, in a spirit of sincere cooperation.*

²⁰ *We should always put citizens first.*

²¹ *We should work towards securing a comprehensive agreement.*

²² *We should work together to minimize disruption and give as much certainty as possible.*

²³ *In particular, we must pay attention to the UK's unique relationship with the Republic of Ireland and the importance of the peace process in Northern Ireland.*

6. **Eremu politiko konkretuen inguruan elkarrizketa teknikoak hasi beharko genituzke, baina arazo nagusiei prioritatea emanez²⁴.** Puntu honetan, merkataritza librerako akordio baten nahia azaltzen du, baina honek besteak baino helmen handiagokoa izan beharko lukeela, argi utziz zerbitzu finantzarioen edo sare industriaren sektoreak barnebiltzen dituenak.
7. **Europar baloreak, bion baloreak direnak, babesteko elkarrekin lanean aritu beharko gara²⁵.** Bere hitzetan, orain inoiz baino gehiago, munduak balore liberal eta demokratiko europarrak behar ditu, eta Europa boteretsua nahi dutela mundua lideratzeko gai izan dadin, balore hauek proiektatuz, eta segurtasun mehatxuei aurre eginez.

Hasieran esan dudan moduan, gutunak lankidetzarako tonu oso nabarmena du, eta askotan aipatzen dute bien arteko erlazio sakon eta berezia lortzeko nahia. Gutun hau, 2015ean Cameronek bidalitakoarekin konparatuz oso desberdina da, kontestua bera ez bada ere, nabari da azken honetan Erresuma Batuaren posizioa ahulagoa dela, eta demandak egiteko zailtasun handiagoak dituela.

6.2. Europar Kontseiluaren orientazioak Brexit negoziaketetarako

Theresa Mayk bidalitako gutunaren ostean, Europar Batasuna erantzuna lantzen hasi zen, Erresuma Batuaren irteeraren negoziaketetan edukiko duen jarrera adierazteko. Horrela, Kontseiluak Erresuma Batuaren Notifikazioaren Ondoriozko norabideak landu zituen, orain aztertuko dugun dokumentua.

Hasiera-hasieratik, lehen orrialdeko bigarren paragrafotik, argi geratzen da negoziaketetan Europar Batasunaren helburua bere interesak, bere hiritarrenak, bere enpresenak eta bere Estatu kideenak defendatzea izango dela. Dagoeneko, desberdintasun nabaria igarri dezakegu Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren jarreraren artean.

Honi jarraiki, orrialde berean, Erresuma Batuari nolabait aurpegiatu egiten zaio joateko iritzia hartzea, ziurgabetasun eta zalantza asko sortu dituela argudiatuz, enpresa, hiritar eta autoritate publikoei kalte eginez. Ondoren, Europar Batasunak batasuna mantenduko duela, eta aho bakarrez hitz egingo duela negoziaketetan azpimarratzen dute. Hau izango da dokumentuan zehar gehien errepikatuko den ideietako bat. Azkenik, negoziaketek huts egiteko kasuan, Europar Batasuna prest egongo dela aditzera ematen dute, nolabait egoera guztietarako pronto daudela esanez. Azken esaldi honekin beldur ez direla ulertarazteko ahalegina egin dutela esango nuke.

Hirugarren orrialdean, oinarritzko printzipioen atalean, Europar Batasunak onartzen du Erresuma Batua kide gertua izateko desira duela. Baina, hurbilpenerako jarrera duten lerro hauen ostean, argi utzi nahi dute kidetasun harreman hori baldintza berdintasunean oinarrituko dela, eskubide eta obligazioen orekan; beraz, jada, sektorekako parte hartzearen aukera bazterturik geratzen da. Halaber, bigarren aldiz jakinarazten digute, negoziaketetan aho bakarrez eta batasunez hitz egingo dela; beste modu batean esanda, estatu kideek ezingo dituzte negoziaketa indibidualak aurrera eramango.

²⁴ *We should begin technical talks on detailed policy areas as soon as possible, but we should prioritise the biggest challenges.*

²⁵ *We should continue to work together to advance and protect our shared European values.*

Negoziaketen lehen fasean, hiritar, enpresa eta interesa duten parteei eta kide internazionaleri argitasuna eta segurtasun juridikoa ematea izango da prioritateetako bat, eta ondoren, Erresuma Batua Batasunetik lokabetzea. Bigarren fasean bien artean etorkizunean egongo den erlazioen lerro nagusiak definituko dira; hala ere, argi uzten dute honen inguruko akordio bat bakarrik formaliza daitekeela Erresuma Batua hirugarren herrialde bihurtzen denean. Azkenik, Batasunaren interesen aldekoak diren formula trantsitorioak lortzen saiatuko direla ere adierazten dute, eta posible denean, zubiak sortzea etorkizuneko erlazioen inguruan. Oso adierazgarritzat ikusten ditut hitz hauek, Europar paper bateratu eta indartsua hartu egiten baitu.

Bosgarren orrialderen zortzigarren puntuan hiritarrentzako garantiak sortzea lehenetsuna izan behar dela esaten da, bai Europar Batasunean bizi diren hiritar britainiarrentzat, eta bai Erresuma Batuan bizi diren europar hiritarrentzat.

Hamaikagarren puntuan, Irlandako egoerari buruz hitz egiten dute. Konponbide malgu eta irudimenezkoen beharra adierazten dute, muga gogorrek sahiestuz Europar Batasunaren ordenu juridikoaren integritatea babesten den aldi berean. Badirudi kasu honetan Europa prest dagoela harreman mota berezi bat sortzeko.

Bai Europar Batasuna, bai Erresuma Batuak adierazi dute bien arteko kooperazio estua bilatu nahi dutela. Kontutan hartu behar da kooperazio honen inguruan desberdin hitz egin dutela biek: Britainiarrek enfasi askoz ere handiagoa jarri dute, eta europarrek, baldintza eta muga asko jarri dituzte. Hamazortzigarren puntuan, Europar Batasunak lankidetzak esturako guraria berriz adierazten badu ere, jarraian argitzen dute hirugarren estatu batek Europar Batasunarekin duen harremana ez dela inoiz Batasuneko kide izatea bezain onuragarria izango. Honekin jarraituz, hogeigarren puntuan honakoa esaten da: nahiz eta merkataritza libreko akordio orekatu, zabala eta anbizio handikoa lortu nahi dugun, hau ez da Merkatu bakarrean (edo honen atal batean) aprte hartzearen baliokide izango.

Azkenik, hogeitabigarren puntuan, merkataritzaren ingurukoak ez diren gaietan asoziazioak sortzeko prest dagoela esaten du Ebak, segurtasunean, defentsan eta kanpo politikan, adibidez.

6.3. Irteeraren negoziaketeak. Ondorioak.

Lankidetzak bien aldetik aipatu den kontzeptua da. Hala ere, argi dago lankidetzak estu honen irudia, desberdina dela bata eta bestearen artean; izan ere, Erresuma Batuak behin eta berrir errepikatzen duen hitza izan da, askotan, beste alternatibarik ez dagoela ulertaraziz. Europar Batasunak, aldiz, mugak jarri dizkio aukera honi, eta beste eszenatoki batzuetarako prest dagoela argi uzten du; halaber, azken honen jarrera askoz ere hotzagoa da dokumentu osoan zehar.

Dagoneko nahiko garbia da Erresuma Batuen kooperaziorako nahia altua dela; baina batzuetan kooperazio sinplea baino, erlazio berezi baten ideia ere aipatzen dute, batez ere haien interesekoak diren sektoreetan, finantzena adibidez. Onartu behar da ere, azken eskakizun zehatz hau bakarrik behin egiten dela, eta, batez ere gutunaren hasieratik onartu egiten dutela sektorekako akordiorik egitea alboratuta geratuko dela; horregatik, merkatu libreko akordio zabal eta sakonaren kontzeptua aipatzen dute, non finantzen sektorea sartuko litzatekeen.

Orokorrean, eta aurretik aipatutako lez, Erresuma Batuaren jarrera lagunkoia eta lankidetzaren aldekoa da; badirudi aurretik Europar Batasunarekiko zuten jarrera aldatu dutela etorkizuna zalantzarria delako.

Europar Batasunaren erantzunarekin jarraituz, erabilitako hizkera bakarrik aztertzerako orduan, jada antzematen da bere posizioa indartu duela. Indartsuago sentitzen da, batuago, eta irudi hori eman nahi du negoziaketei begira. Hau horrela izateko arrazoiak bat, zalantzarrik gabe, Frantziako hauteskondeen emaitzak izan dira. Bien arteko elkarlan eta kooperazioari baietz esaten diote, baina abantaila edo pribilegioerik gabe; Britainiarrek beste edozein herrialderen moduan negoziatu beharko dute haien etorkizuneko erlazioa, atera egiten direnean eta hirugarren estatu bihurtutakoan; hala ere, zenbait irizpide negoziaketetan finkatzeko aukera ematen dute.

Gainera, bere posizio batua nabarmendu dute; argitasunez gutunean zehar argitasunez adierazten da Europar Batasuneko Estatuak ezingo dutela indibidualki negoziatu Erresuma Batuarekin. Hori zen, hain zuzen ere, haien estrategietako bat. Honek negoziazio botere oso handia emango dio Europar Batasunari.

Aurretik izan dituzten elkarrizketa eta negoziaketekin konparatuz, esate baterako 2015ean David Cameronek bidalitako gutunarekin eta Batzordetik jasotako erantzunarekin konparatuz, aldea izugarrikoa da; izan ere, duela bi urte bazirudien Erresuma Batuak negoziaketa botere oso handia zuela, eskakizun asko egiten zituen eta mehatxuzko tonua erabiliz hitz egiten zuen; Europar Kontseiluaren

erantzunean, jarrera ahula nabari da, britainiarren eskakizun guztiei, edo ia guztiei, onspena emanez. Oraingo irudia guztiz bestelakoa da; nik esango nuke, alderantzizko egoera dela.

Europar Batasunak azaldu duen jarrera kontutan hartuz, badirudi *Hard Brexita* gertatzeko aukerak asko ugartu direla; badirudi askotan entzun den “Brexita, Brexit esan nahi du” esaldia beteko dela, eta ez dela erdibiderik egongo. Hori dela eta, lanean zehar azaldu ditudan eszenatoki asko ezeztatuta geldituko lirateke, gutxienez etorkizun gertuan. Dena den, eszenatoki horiek azaltzeko moduan, gertatzeko aukera gutxi zeudela azpimarratu nuen.

7. Ondorio orokorrak.

Lan honen helburu nagusia Brexitaren irudi sakona lortzea izan da; horretarako, fenomeno bera aztertzeaz gain, honen inguruan eta honen atzetik dauden eta egon diren elementuak aztertzen saiatu izan naiz. Elementu horiek asko izan dira: historia, gaur egungo testuingurua, etorkizuneko erlazioen ereduak... Baina hasi berri den prozesua da, eta zaila da jakitea zer bide hartuko diren, oraindik denbora gutxi pasa baita; hilabeteen joanak argituko digu etorkizuna.

Hala ere, gauza zehatz bat baguen: iragana. Izan ere, jende askok uste du Brexita fenomeno guztiz berria dela, gaur egungo kontestuari soilik lotuta, baina, nire ustetan, hori horrela ez dela frogatzea lortu izan dut; beraz, nire lehen hipotesia baieztatutzat eman dezaket: Britainiarrek Europarekiko duten mesfidantzak erro historiko zabalak ditu.

Baina iraganak ez du dena azaltzen; gaur egungo kontestuak ere paper oso garrantzitsua izan du Brexitaren sorrera eta onarpen sozialean. Alde batetik, nazioarteko kontestu orokorra aldaketa sakonekoa da; batzuk ordenu liberalaren kolapsoa bizi dugula esaten dute, non klase ertainen (orain, askotan baxuak direnak) gogaitze eta etsipen sentimenduek limitea jo duten; horregatik eliteen aurka egiteko, mugimendu populistetan (zentzu zabalean, ez orokortu den zentzu txarrean), jartzen dute haien konfidantza osoa. Pertsona hauek lanean zehar aipatu dudana "prekariadoa" osaten dute, lehen klase ertaineko pertsonak zirenak, engainaturik sentitzen direnak, eta gaur egun, txirotasun edo prekarietate muturrekoan daudenak. Globalizazioak, politika neoliberalak eta krisi finantziarioak preariadori inori baino gogorrago jo die.

Sentitzen duten amorrua adierazteko modu bakarra boza dute; horregatik, eliteek txarra dela esan duten horri boza ematen dio prekariadoak. Errebeldia boza dela esango nuke. Amerikako Estatu Batuetan eman da, Frantzia ia eman da, eta Erresuma Batuen ere eman da. Gehiago ere badaude, eta guzti hauen artean desberdintasun nabariak daudela ergi dago; izan ere, berdin kontsideratzea txorakeria izango litzateke. Baina argi dago gauza bat amankomunean dutela: klase ertain-baxuen etsipena. Horregatik, nire bigarren hipotesia onartutzat eman dezaket: gaur egun bizi dugun nazioarteko kontestuak eragina izan du Brexitaren aldeko jarrera gainjartzerako orduan.

Halaber, aurreko paragrafoan azaldutakoak hirugarren hipotesiarekin harremana du ere, barne faktoreen eragina erreferendumean berebizikoa izan dela esaterakoan. Baina barne faktore hauek desberdinak izan dira nazioz-nazio:

Ingalaterran nazionalismo ingelesaren iratzarpenak izugarriko eragina izan du. Lanean azaldu dudana moduan, Erresuma Batuko eremu askotan, Brexita nazionalismo britainiarrekin lotzen da, eta azken honen atzean, ia beti nazionalismo ingelesa dago: handikeria nazional horretan ingeles elementuak dira goraiatzen direnak. Dena den, beste faktore oso garrantzitsu bat badago: Ingalaterra Erresuma Batuko lurralde industrializatuena da, horregatik, Thatcherrek hasitako politika neoliberalak gehien zigortu duten lurraldea izan da; honetan, pribatizazioak, langabezia, txirotasuna eta prekarietatea izugarri hazi dira. Prekariadoaren lurraldea dela esan dezakegu ere.

Askok esan dute Brexita Thatcherismoaren aurkako matxinada bat dela, babes masiboa izan duelako Thatcher desegituratu eta txirotu zituen erregio eta hirietan (La Torre, 2016: 7).

Eskozian, 2014ko independentzia erreferendumean argi geratu zen populazioa europarzailea zela, independentzia lortzekotan, Batasunetik kanpo geratuko zirelaren mehatxuek, Erresuma Batuan geratzearen aldeko apustua egitea eragin zuen; eta orain, Londresetik denak atera nahi dituztela ikusterakoan, honen aurka egin dute eskoziarrek. Ondorioz, Eskoziak modu argian adierazi du bere Europar Batasunean geratzeko nahia.

Azkenik, Ipar Irlandan, hausturak markatutako iraganak berebiziko papera izan du bozketan. Hautentzat, Europar Batasunak zentzu askotan bakea esan nahi du, azken honek programa asko bultzatu baititu honen aurrerapenak bermatzeko. Gainera, bere markoan bi Irlandek nolabait batzeko aukera izan dute: kooperaziorako eremuak ezarri dira, garapen ekonomikoa sustatu da mugen desagerpenaren ondorioz, langileek mugaren bi aldeetan egin dezakete lan, eta Ipar Irlandako nekazari askok europar laguntza ekonomikoen onurak jaso dituzte, lurralde honetan lehen sektorearen pisua oso handia baita.

Beraz, gure hirugarren hipotesia ere onartu behar dugu: Barne faktoreen eragina berebizikoa izan da. Eskozian, Ipar Irlandan eta Ingalaterran eragin duten faktore hauek desberdinak izan dira.

Bestalde, duela oso gutxira arte Europar Batasunaren ahulezia nabaria zen. Batzuek 2016a Batasunaren *annus horribilis* izan dela esaten da (La Torre, 2016:3). Izan ere, 2015ko Greziako krisiak, errefuxiatuen gaiak, Ekialdeko Europako nazionalismoen gorakadak, eraso terroristek, neoliberalismoaren garaipenak, mozketak sozialek eta hauek ekarritako haserre popularra, askotan Europar Batasunaren aurka agertzen zena, eta azkenik Brexitak, oso garai txarra eragin zioten Europar Batasunari (La Torre, 2016: 3,4,5). Argi dago ez zegoela bere momenturik onenean; behar zuten azken gauza Brexitean baietzak irabaztea zen, honek jadanik ahul zegoen Batasuna apur zezakeelako, kontutan hartuz domino efektuak Frantzia eragina izan zezakeela. Ondorioz, Europar Batasunak Erresuma Batuaren eskakizunei men egin zien bere garaian.

Azkenean Erresuma Batuko herriak Europar Batasunetik ateratzeko erabakia egin zuen; baina Emmanuel Macronek hauteskundeak irabazi zituen Frantzia, beraz, ate bat itxi bazen ere, leiho bat zabaldu zitzaion Batasunari. Merkelek eta Macronek, Europar berrantolaketa historiko baten beharra duela adierazi dute, eta bien artean ibilbide orriak finkatuko dituen lan taldea osatuko dutela esan dute (Carbajosa, 2017).

Negoziaketen lehen pausuan ikusi dugu arreta hizkeran jartzen badugu bakarrik, jada nabari daitekeela Europar Batasunaren posizioa indartu egin dela; dagoeneko ez ditu kontzesioak egiten, baldintzak jartzen dizkio Erresuma Baturei, eta gainera, aho batez hitz egingo duela adierazten du behin baino gehiagotan.

Angela Merkelek eta Frantziako Kanpo ministroak Erresuma Batuarekin negoziazio paraleloak ez direla egongo adierazi dute. Ez da etorkizuneko erlaziorik negoziatuko dibortzioaren terminoak finkatu baino lehen. Halaber, Alemaniako kantzilerrak adierazu du Europar Batasunaren askatasunak ezin direla zatitu, Londresetik ezingo duela interesatzen zaiona bakarrik aukeratu (Doncel; Bassets, 2017).

Horrela, gure laugarren eta azken hipotesiak onartu eta indartuzat eman ditzakegu:

4. Europar instituzioen jarrera azkenengo testuinguruan indartu eta bateratu egin da, batez ere Frantziako hauteskundeen emaitzen ostean.
5. Aurreko hipotesian aipatutakoak, europar instituzioen indartzeak alegia, negoziaketek *hard Brexit*aren bidea hartzea eragingo du.

Hard Brexitaren bidea hartzeak eragin dezake lanean zehar azaldutako etorkizuneko eszenatoki asko baliogabeturik geratzea; hala ere, negoziaketak hasi berriak dira, eta gutxienez bi urte iraun behar dute (askok are gehiago iraungo dutela defendatzen dute ere). Beraz, ez dakigu denbora pasa ahala zer gerta daitekeen; agian *Continental Partnership* batean murgildurik egongo gara.

Dena den, askotan badirudi Erresuma Batuak, erabaki hau hartu ostean, ez duela aukera ekonomiko eta politiko gehiagorik edukiko, haienezko hondamendia bailitzan; baina errealitatea da sare ekonomiko oso boteretsua dutela, Londreseko hiria gune finantzario oso garrantzitsua dela maila globalean, *Commonwealth*a dutela atzetik, erlazio berezia Amerikako Estatu Batuekin eta haien influentzia mundu osoan zehar barreiatu dagoela, gainera munduko herrialde boteretsuenetarikoa bat dira. Faktore guzti horien (eta gehiagoren) kontziente dira, eta erabiltzen jakingo dute.

Europara bueltatuz, ematen du Batasun geroz eta independenteago batean izango garela datozen urteetan. Merkelek, duela egun gutxi honakoa adierazi zuen: “Europarrok norabidea gure eskuetan hartu behar dugu”. Europar Batasuna ez da Brexitaren eta Trumpen aurrekoaren berdina; hau da Taorminan ospatutako G7aren bileran nabaritu den sentsazioa (Carbajosa, 2017).

“Besteen eskuetan modu osoan egon gintezkeen garaia, neurri batean, amaitu egin da. Nire azken egunetako esperientzia da hau”. Hauek dira Munichen Kantziler alemaniarrek izandako hitzak. “Europarrok gure patuaren alde borrokatu behar gara”, “noski, Estatu Batuen eta Erresuma Batuarekin ditugun laguntasunezko harremanekin jarraituz, baita auzotasun oneko harremanak izanez beste estatu batzuekin posible denean, baita ere Errusiarekin”. Oso hitz adierazgarriak dira; izan ere, ulertzea ematen da Europak bere bide propioa egingo duela bi potentzia nagusien artean, biek harremanak edukitzeko aukera egongo dela azpimarratzen duelarik. Bide honetatik jarraituz gero, askoren aburuz, Europar Batasunaren aramada amankomunaren sorrera oso posiblea izango da.²⁶

Garai hau Europar Batasuna demokratizatzeko aukera paregabea dela deritzot; Bruselak bere iraganeko akatsak kontutan hartu beharko lituzke, hiritargora hurbiltzeko, benetako demokrazia batetan bihurtzeko, pertsonak, eta ez merkatuak, erdigunean dituen Europar Batasuna sortzeko. Europa politika sozialen eta ongizate estatuaren gotorleku bihurtu beharko litzateke, ongizatea herritar guztiei bermatuz. Hala era, honek zaila dirudi momentuz; izan ere, Macronek agenda neoliberala du zalantza barik, eta gogora dezagun Habermasek esaten duena: “eskubide sozialak dira hiritargo demokratiko baten aldarnio eta soina” (La Torre, 2016: 10).

²⁶ Martxoan, Hollandek, defentsa amankomuna, Europar Batasunak aurrera eraman beharko duen gaietako bat izan behar dela adierazi zuen. Defentsa amankomunaren inguruan gehiago irakurtzeko, hau artikulua interesgarria izan daiteke: <http://www.politicaexterior.com/articulos/politica-exterior/pasos-de-gigante-en-la-defensa-europea/>

BREXIT: Europar Batasunaren Etorkizuna Kolokan.
Garapen historikoa, eszenatoki posibleak eta negoziaketak.

Argi dagoena da, Europar Batasunaren erdigunean ardatz franko-germaniar bat egongo dela, eta mundu honetan bere bidea egiten saiatuko dela. Garai hau, iragana eta etorkizunaren arte mugarrria izango da.

Lanean badaude landu ez diren gaiak, edo modu zabalegian aztertu ez diren puntuak; horregatik argitu nahi dut denbora faltak mugak ezarri dizkidala puntu askoren garapenean. Hala eta guztiz ere, eta atal honen lehen paragrafoan adierazi dudan moduan, uste dut nire helburu nagusia bete dudala: Brexitaren irudi sakona lortzea.

Bibliografia.

- BBC. (2017). The four key points from David Cameron's EU letter. 2017ko maiatzaren 22an ikusia, iturria: <http://www.bbc.com/news/uk-politics-34779250>
- Briggs, M. (2017). Europe 'à la carte': The whats and whys behind UK opt-outs. *Euractiv*. Iturria <http://www.euractiv.com/section/uk-europe/linksdossier/europe-a-la-carte-the-whats-and-whys-behind-uk-opt-outs/>
- Carbajosa, A. (2017). Merkel y Macron buscan una refundación de la UE. *El País*. 2017ko maiatzaren 29an ikusia, iturria: http://internacional.elpais.com/internacional/2017/05/15/actualidad/1494874313_980355.html
- Carbajosa, A. (2017). Merkel: "Los europeos tenemos que tomar el destino en nuestras manos". *El País*. 2017ko maiatzaren 29an ikusia, iturria: http://internacional.elpais.com/internacional/2017/05/28/actualidad/1495991847_111089.html
- Cockburn, P. (2017). Brexit unleashed an English nationalism that has damaged the union with Scotland for good. *The Independent*. Iturria <http://www.independent.co.uk/voices/brexit-scottish-referendum-english-nationalism-damaged-union-for-good-a7635796.html>
- Curtice, J. (2016). *Why did Scotland vote to Remain?. What Scotland Thinks*. 2017ko Apirilko 15ean errebistatuta, <http://blog.whatscotlandthinks.org/2016/10/why-did-scotland-vote-to-remain/> -tik
- de Areilza Carvajal, J. (1996). El Reino Unido en la Unión Europea. *Estudios De Política Exterior*, 51. Iturria <http://www.politicaexterior.com/articulos/politica-exterior/el-reino-unido-en-la-union-europea/>
- Diamond, P. (2016). The Conservative Party and Brexit. *The UK In A Changing Europe*. Iturria <http://ukandeu.ac.uk/the-conservative-party-and-brexit/>
- Doncel, L., & Basset, M. (2017). Merkel marca una línea dura ante el adiós británico a la UE. *El País*. 2017ko maiatzaren 29an ikusia, iturria: http://internacional.elpais.com/internacional/2017/03/28/actualidad/1490726680_709829.html
- Dupuy, H. A., & Morgante M. A. (2016). *EUROPA, ENTRE EL BREXIT Y LOS NUEVOS ESCENARIOS DE LA INTEGRACIÓN*. VII Congreso de Relaciones Internacionales. Universidad de La Plata. Iturria: <http://congresos.unlp.edu.ar/index.php/CRRII/CRRII-VIII/paper/viewFile/3462/872>
- Editoriala. (2016). Brexit means Brexit – but the Conservative Party remain divided on what that actually means. *Independent*. Iturria <http://www.independent.co.uk/voices/editorials/brexit-means-brexit-but-the-conservative-party-remain-divided-on-what-that-actually-means-a7218366.html>
- El País. (2017). Documento: la carta íntegra del Brexit. R2017ko maiatzaren 19an ikusia, iturria: http://internacional.elpais.com/internacional/2017/03/29/actualidad/1490790252_833297.html

- Europako Batzordea. (2017). *Libro Blanco Sobre el Futuro de Europa*. Brusela: Europar Batzordea.
- Europar Kontseilua. (2017). *Letter by President Donald Tusk to the Members of the European Council on his proposal for a new settlement for the United Kingdom within the European Union*. European Council. 2017ko maiatzaren 22an ikusita, iturria: <http://www.consilium.europa.eu/en/press/press-releases/2016/02/02-letter-tusk-proposal-new-settlement-uk/>
- Europar Kontseilua. (2017). Orientaciones del Consejo Europeo (art. 50) para las negociaciones del Brexit . Brusela. Londres. 2017ko maiatzaren 20an ikusita, iturria:<http://www.consilium.europa.eu/es/press/press-releases/2017/04/29-euco-brexit-guidelines/>
- Gracia, M. (2016). ¿Qué fue del Imperio británico? Reino Unido en la globalización. *Estudios De Política Exterior*, (76). Iturria <http://www.politicaexterior.com/articulos/economia-exterior/que-fue-del-imperio-britanico-reino-unido-en-la-globalizacion/>
- Guimón, P. (2015). Cameron lanza la renegociación de la posición de Reino Unido en la UE. *El País*. Londres. 2017ko maiatzaren 20an ikusita, iturria: http://internacional.elpais.com/internacional/2015/11/10/actualidad/1447149568_979878.html
- Guimón, P. (2015). Londres advierte a la UE de que una reforma “cosmética” no bastará. *El País*. Londres. 2017ko maiatzaren 20an ikusita, iturria: http://internacional.elpais.com/internacional/2015/11/08/actualidad/1447020618_891331.html
- Jensen, M., Snaith, H. (2016). When politics prevails: the political economy of a Brexit. *Journal Of European Public Policy*, 23(9). Iturria <http://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/13501763.2016.1174531?scroll=top&eedAccess=true&>
- Kavanagh, D. (1997). *British Politics: Continuities and Change* (3rd ed.). Oxford: Oxford University Press.
- Kühn Baca, W. (2015). Aspectos Jurídicos y perspectivas políticas de un posible retiro de la Unión Europea por parte de Reino Unido. *Revista de Relaciones Internacionales de la UNAM*, 120 eta 121.
- La Torre, M. (2016). El Brexit y el liberalismo autoritario. *Universitas*, 25. 2-11.
- Martino, A. (2016ko Urria – 2017ko martxoa). BREXIT. *POSTdata*. 21 (2).
- Mathieson, D. (2016ko udaberria). Una relación tormentosa: Reino Unido, Europa y ‘Brexit’. *Estudios De Política Exterior*, (76). Iturria <http://www.politicaexterior.com/articulos/economia-exterior/una-relacion-tormentosa-reino-unido-europa-y-brexit/>
- May, T. (2017). *Prime Ministers letter to European Council President Donald Tusk* (1st ed.). Londres. 2017ko maiatzaren 22an ikusita, iturria: https://www.gov.uk/government/uploads/system/uploads/attachment_data/file/604079/Prime_Ministers_letter_to_European_Council_President_Donald_Tusk.pdf

- Muñiz, M. (2017). El Colapso del Orden Liberal. *Estudios De Política Exterior*, 175. Iturria <http://www.politicaexterior.com/articulos/politica-exterior/el-colapso-del-orden-liberal/>
- Nelsson, R. (2017). Archive: how the Guardian reported the 1975 EEC referendum. *The Guardian*. Iturria: <https://www.theguardian.com/politics/from-the-archive-blog/2015/jun/05/referendum-eec-europe-1975>
- Ollikainen, M. (2016). *Los ingresos de la Unión Europea. Parlamento Europeo*. 2017ko Martxoaren 29an errekuperatuta, iturria: http://www.europarl.europa.eu/atyourservice/es/displayFtu.html?ftuId=FTU_1.5.1.html
- O'Toole, F. (2016). Brexit is being driven by English nationalism. And it will end in self-rule. *The Guardian*. Iturria: <https://www.theguardian.com/commentisfree/2016/jun/18/england-eu-referendum-brexit>
- Pisani-Ferry, J., Röttgen, N., Sapir, A., Tucker, P., & Wolff, G. (2016). Europe after Brexit: A proposal for a continental partnership.
- Sandschneider, E., & Wolff, O. (2014). The United Kingdom and the European Union: What would a "Brexit" mean for the EU and other States around the World?. *DGAPanalyse*, 16, 32.
- Serrano Leal, C., Montoro Zulueta, B., eta Viguera Rubio, E. (2005). El sistema de recursos propios comunitario: El cheque británico. *ICE*, 2853. Iturria http://www.revistasice.info/cache/pdf/BICE_2853_03-12_B96CCD33C07A22C82EC67A57428FE1EA.pdf
- Traynor, I. (2015). David Cameron's EU demands letter explained. *The Guardian*. 2017ko maiatzaren 22an ikusia, iturria: <https://www.theguardian.com/politics/2015/nov/10/david-camerons-eu-demands-letter-explained#img-2>
- Watts, J. (2017). EU Parliament's chief negotiator brands Brexit as a 'catfight in Conservative party that got out of hand'. *INDEPENDENT*. Iturria: <http://www.independent.co.uk/news/uk/politics/eu-parliament-guy-verhofstadt-brexit-catfight-conservative-party-tory-a7667476.html>
- Wellings, Ben (2012). Losing the peace: Euroscepticism and the foundations of contemporary English nationalism. *Nations and Nationalism*, 16 (3). Iturria: <http://eprints.hud.ac.uk/18601/>